

450.ZENBAKIA-ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2023KO MAIATZA

KARKARA

GUKA

JOSE IGNACIO ALUSTIZA 'PALAZIYO'

**GASOLINA ETA
TRIKITIA**

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
 www.cristaleriaanorgatxiki.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO
 943-83 00 34
 autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



ARDORA
 arraindegia

Eusko Gudari, 4
 © 943-09 28 17 © 623 47 57 52
 ardoraaraindegia@yahoo.com
 ORIO



arkaitz taberna
 orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terraza ederrarekin
 giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

azkue
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
 AIA-ORIO
 943-83 51 86



azkue
 auto

Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

iglesiascerrajeros@yahoo.es
 www.iglesiascerrajeros.com
 Erribera kalea, 14 · ORIO
 637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua



fontana
 iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak

Komun eta sukaldeen erreforma
 Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
 Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
 Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
 Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO
 fontana-jul@hotmail.es
 www.fontaneria-fontana.com
 943-53 98 88 · 661 26 28 28



Joseba
 AROZTEGIA · CARPINTERIA

687 683 427
 josebaarotza@gmail.com

ATEAK
 ZOKALOAK
 ARMAIRUAK NEURRIRA
 LEIHOAK
 ESKAILERAK
 AROZTEGIA OROKORREAN



KAÏOA

kaioa_denda
 www.kaioa.es





KARKARA 450

2023-MAIATZA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 5 | Korapiloa Andrea Zipitria
<i>Kultura, elkar-truke</i> | 16 | Elkarriketa Andrea Zipitria
<i>Jose Ignacio Alustiza 'Palaziyo':
"Gustuko nuen taxian jendearekin
hitz egitea eta kantatzea"</i> |
| 6 | Hitz tantak Onintza Lete Arrieta
<i>Ainara Saizar: "Doinu bakoitzera
moldatzea gustatzen zait"</i> | 23 | Moila bazterretik Aritz Pardina
<i>Prokrastinazioa</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Joxemari
Olasagasti
<i>Pabxi Sarasuari omenaldia</i> | 24 | Guka, parean eta pareko Juan
Luis Romatet
<i>Mugarik ezagutzen ez duen
harribitxia</i> |
| 11 | Gutunak | 32 | Erreportajea Aiora Larrañaga
Solaberrieta
<i>Joskintza, belaualdien arteko zubi</i> |
| 12 | Akuilua hartuta Maialen
Etxeberria
<i>Barruan ala kanpoan?</i> | 37 | Guka gara! |
| 13 | Puntua jarrita Ainhoa Mateos | 38 | Oroimenaren kutxa Iñaki Iturain
<i>Txistulariak edo músicos juglares</i> |
| 14 | Euskara Jabier Zabaleta
<i>Carmen Gil: "Ni Palentziakoa naiz,
baina euskara da gure seme-alaben
ama hizkuntza"</i> | 42 | Erreportajea Aritz Mutiozabal
<i>Rocka den mira hadi!</i> |
| 15 | Herrian galdezka
<i>Zer eskatuko zenieke udal
hautakundeetara aurkeztu diren
hautagaiei?</i> | 45 | Ikasleak idazle Zaragüeta Herri
Eskola |
| | | 46 | Plazan bazan |

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta
Erredaktore taldea
Andrea Zipitria
Aritz Mutiozabal
Onintza Lete Arrieta
Juan Luis Romatet
Diseinu arduraduna
Ane Azkue

Publizitatea

Leire Martija
**Zenbaki honetako
kolaboratzaileak**
Joxemari Olasagasti
Maialen Etxeberria
Ainhoa Mateos
Jabier Zabaleta
Aritz Pardina
Iñaki Iturain

Banatzzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 4.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIKO
UDALA

Babesleak:





%100 etxean egina
PIZZERIA
KALETA

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



Katu
Horia
Aibaitaritzza klinika

ESTROPALARIZ, 10
20510 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larruafaiak
66889/129



GARMENDIA
Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 - 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 - ORIO
info@egarmendia.com

ITZIAR
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



BODEGA
KATXIÑA

Ortzaika, 20 - ORIO
943-58 01 66 - 606 36 76 93
www.bodegakatxiña.com · f i

Kepa Loidi
harategia-urdaitegia

24 ordutik harategi banagailua

Pelotari kalea, 1 - Orio · 943-83 25 65
www.kepaloidi.com - info@kepaloidi.com



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



Kolon Txiki
edaritegia - jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 - ORIO - 943-13 15 17

libe
elikadura
aholkularitza

Ondo elikatuz bizi
Heziketa nutrizionala | Menuen planifikazioa
| Nutrizio klinikoa | Elikadura kirolean
| Elikadura bizitzako aro ezberdinetan

Eusko gudariak, 35 - ORIO (sarrera Arrantzale kaleatik) - 943-53 64 94 - 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com - www.libegarmendia.com

Lizaso
Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 - ORIO - 943-83 07 84
litzilizaso@gmail.com



LASTER
DESATASCOS

688 88 65 36 | 943-75 14 31
desatascos@desatascoslaster.com
ORIO | SORALUZE



ILKAPAINGIA
Eusko Gudari, 8 beheak - ORIO
943-13 47 29

Kultura, elkar-truke



ANDREA ZIPITRIA

Aiako kaleek azken urteetan islatu dute gizartean, orokorrean, ikusi den biztanleriaren aldaketa: herriak gero eta anitzagoak dira jatorriari dagokionez. Hainbat nazionalitate, kultura eta erlijio nahasten dira; eta herritarrak zein gizarteak errealitate berri horretara egokitu behar du.

Mundu mailan bizitzen ari den fenomeno da. Migrazioak kultura anitzeko gizarteak sortzen joan dira, eta hori, herri baten aberastasunaren sinonimo da. Gizarte gisa, ideia ezberdinen trukea eta gizarteratzeko prozesu hori beharrezkoa dela iruditzen zait, errespetua abiapuntutzat jarrita, noski. Kultura ezberdinen ezagutzea, bizitza intelektual, afektibo eta moral aberasgarriago bat izateko bide da. Horrek guztiak, ordea, erronka sozial bat suposatzen du.

Izan ere, leku askotan bezala, teoria gauza bat izaten da eta praktika, bestea. Bada, zentzu horretan, Aiako herria txalotu nahiko nuke, ekitaldiz betetako aste multikulturala antolatu baitu.

Hain zuzen ere, Aiako Udalak, Xatur gaztelekuak, Aiako Lardizabal Herri Eskolako Guraso Elkarateak eta Aiako Gazte Asanbladak elkarlanean osatu dute aste multikutlurala, eta adin zein gustu ezberdinetako herritarrentzat izan da kultur aniztasunaz gozatzeko aukera, astebetez.

Ekintza guztietatik, bat, benetan polita iruditu zait. Herriko plaza kolorez jantzi zuten egun batez. Hainbat postu jarri zituzten kultura ezberdinetako jakiak dastatzeko aukera eskainiz. Besteak beste, Brasil, Txile, Argentina, Venezuela, Peru, Errusia, Pakistan, Japonia, Italia, Holanda, Venezuela eta Euskal Herriko postuak izan ziren. Kultur aniztasun eredu baten argazki polita, eta noski, horiek guztiek dute komunean bizitokia: Aia.

Herriak aurrerapauso handia eman du aniztasunaren ikuspuntu horretatik. Orain dela urte batzuk, leku askotan bezala, pentsaezina baitzen halako zerbitzu antolatzeko inizatiba hartzea ere. Aiako Udaleko datuen arabera, 39 nazionalitateko herritarrak ditu Aia herriak egun. Biztanleria aintzat hartuta, zifra esanguratsua benetan.

Hala eta guztiz ere, aniztasunak kasu askotan gatazka iturri izaten jarraitzen du gaur egun, gizarte uniforme bat bihurtzeko joera okerra hartzen baita askotan. Immigranteen integrazioari eta beraien kulturari bide emateko, ordea, beharrezkoa da euren kultura errespetatuz egitea. Euskaldunona bezalako kultura gutxiagotu batetik ikusita mundua, are eta gehiago. Askok mehatxu gisa ikusten dituzten gauza horiek, aukera bihur daitezke. ■■■

**ANIZTASUNAREN
EREDU DA AIAK
BERRIKI ANTOLATU
DUEN ASTE
MULTIKUTLURALA**

Ainara Saizar: "Doinu bakoitzera moldatzea gustatzen zait"

TESTUA ETA ARGAZKIA: ONINTZA LETE ARRIETA

"Panderolea, ama, perfekzionista eta jenio bizikoa" da Ainara Saizar (Aia, 1988) iazko elkarrizketaren batean aitortua duenez. "Orain ere horrelaxe definituko nintzateke", gaineratu du. Hamaika trikiti txapelketa irabaziak ditu Xabi Etxaniz trikitilari azkoitiarrarekin, eta datorren urtean ospatuko den txapelketan parte hartuko duten ala ez argi ez badu ere, ez du ezezko borobilik esan.

Trikitiaren bueltan ibili zara txikitatik.

Bai. Etxean txikitatik entzuten genuen trikitia, eta panderoak ere beti gertu izaten genituen. Niri, berez, trikitixa gustatzen zitzaidan, hori ikasi nahi nuen, anaiak ere jotzen zuelako. Amak baietz esaten zidan, 9 urte egindakoan hasiko nintzela, eta bete nituen 9 urte, eta hasi nintzen ikasten, Azkoitiko musika eskolan. Han ezagutu nuen Xabi Etxaniz. Txapelketetarako prestatzen zebilen, panderojolea behar zuen, eta nik banekienez panderoa jotzen, azkenean halaxe hasi ginen txapelketen munduan, 14 urterekin edo. Beti esaten nuen txapelketa batean atera nahiko nukeela trikitixa joaz, baina ez da gertatu; arantza horixe geldituko zait.

Ibilbide oparoa egin duzue.

Hala da, bai. Xabi *krak* bat da; gure belaunaldiko onena dela esango nuke. Oso harreman ona egin genuen hasieratik, eta uste dut konplizitate horrek jotzerako momentuan ere baduela eragina. Asko gustatzen zaigu, pila bat gozatu dugu, eta txapelketetan ondo ibiltzen ginenez...

Txapel mordoa etxera...

Bai. Elkarrekin emerretzi txapel ditugula uste dut. Azken urteetan, Markinan [Bizkaia] helduentzako txapelketa antolatzen ari dira, eta beste bi txapel ditugu. Bi urtetik behin egiten dute: aurrenekoa irabazi genuen, bigarrengoan bigarren gelditu ginen, eta iaz berriro irabazi genuen.

Etxaniz zuen belaunaldiko onena dela diozu, baina zeuk ere izango duzu merituen zatiren bat. Zer azpimarratuko zenuke zure jitzeko moduez?

Indartsu jotzen dut panderoa, eta gustatzen zait musikarekin batera joatea, doinu bakoitzera moldatzea. Nahiko plazandrea ere banaiz; oholtzara ateratzen naizenean, *hemen nago ni* esaten dut. Gozatu egiten dut jendaurrean joz.

Txapel edo sari berezirik baduzu gogoan?

Begira, 16 urte inguru genituenean, Kursaalera joan ginen Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak antolatutako nazioarteko trikiti jaialdi batera, eta gogoan dut guretzat oso erreferenteak ziren pertsonak joan zirela. Egun pasa eraman gintuzten, eta famatuek bezala, geure kamerinoa genuen, eta oroitzapen oso polita daukat.

Erreferenteak aipatu dituzu. Zein dira zureak?

Maixa eta Ixiar, Kristina eta Amaia, Alaitz eta Maider... Txikitan etxean asko bizi izan dugu euskal musika, trikitixa batez ere, eta gu etxean beraiei imitatzen jolasten ginen: ni soinuak jotzen, ahizpa panderoa jotzen... Gurasoengandik etorri zaigu, aitarengandik, trikitixa asko gustatzen zitzaiolako. Berak ez zuen ikasteko aukerarik eduki, baina igandero Aristerrazura joaten ginen erromerietara.

Bereziki hunkitzen zaituen piezarik badago?

Zoritarrez, aita eta anaia falta zaizkit, eta aukera izan dut San Jose jaialdian parte hartu eta beraientzat egindako kanta jotzekoa: mundu guztiaren aurrean beraiei eskaini ahal izan nien pieza. Xabik sortu zuen pieza, eta Egoitz Eizagirrek egin zituen bertsoak. Oso bereziak dira niretzat.

Eguna alaitu nahi duzunean zer abesti entzuten duzu?

Oraindik ere pila bat entzuten dut Maixa eta Ixiar, baita Gozategi ere; barruan zerbait eragiten dit Gozategik. Denetarik entzuten dut, baina trikitixak zerbait berezia sortzen dit.

Trikitixa sasoi onean al dago?

Baietz uste dut, aldaketa garaian dagoen arren: oraindik batzuentzat tradizional-tradizionala da, baina ikusten dut asko zabaltzen ari dela hainbat musika estilotan. Gero, ikusi besterik ez dago igandeetan nola egoten den Aristerrazu gaztez beteta. Oso bizirik ikusten dut trikitixa. ■■■



Patxi Sarasuari omenaldia

ARGAZKIA: JOXEMARI OLASAGASTI

TESTUA: ARITZ MUTIOZABAL

Bereziak izan ziren apirilaren 22an jokaturako Orioko Nazioarteko XVIII. Estropadak. Alde batetik, bost urteko etenaldiaren ostean berriz gauzatu zirelako, ikusmin handiarekin, eta bestetik, etxeko bi zortzikoek, emakumezkoek zein gizonezkoek, garaipena lortu zutelako, herrian dagoen maila ona agerian utzita. Garaipenaz gain, ordea, une benetan hunkigarria bizi izan zen herriko plazan. Horiz jantzitako sari banaketarekin batera, etxeko arraunlarien altzoan, omenaldia egin baitzioten Patxi Sarasuari, Orion arraunketa olimpikoa sustatzeko egin zuen lanaren aitortpen gisa. Herritarrez eta arraunzalez bete zen plazak txalo artean eskertu zion bere lana nahiz herriari egoniko ekarpena. ■■■■





MENDIZABAL
AROTEGIA
Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Betti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

PAKO IMAZ



PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



Orioko
Herri
Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



Portu
Erreteta - Jateak

Kazolitat, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34



Sagasti
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudar, 7
20810 Orío

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi
667 74 02 79

BODEGON

Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa




generoa
garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Hauteskundeak

HERRITAR BAT

ORIO

Maiatza. Arrantzaleak antxoatara eta udal politikariak boto bila. Lau urtero gertatu ohi den bezala, hauteskundeen atarian gaude. Demokrazia denon interesak kudeatzeko sistema parte hartzailea da, eta udal politikak horretaz arduratu beharko luke.

Udaberriarekin natura eraberritu den bezala, duela lau urte eratu zen udal berriaren lanarekin politika egiteko modua eraldatu da. Orain bestelako giroa sumatzen da. Hori, noski, ez da pertsona bakar baten lanaren emaitza; baina alkatearen eskua garbi antzematen da. Patroi-lan ona egin du. Bakea, errespetua, komunikazioa, erantzukizuna... Politikak ezaugarri horiek izan beharko lituzke, eta Orion gaur egungo udal politikan tokia badaukate. Bejondeizuela lan egiteko modu berrian aletxoak jarri duzuen guztioi!

Maite dudan herriari

ANUSKA ESNAL OLIDEN

ORIO

2019ko otsaila hartan, Orioko Kultur Etxean egin nuen alkatetzarako nire hautagaitzaren aurkezpena. Oriok beste udal bat merezi zuela eta eman nuen pausoa, ahaldunduta. Nire burua erronkarako prest sentitzen

nuen, eta taldekide onenez inguratuta, maite dudan herria justuagoa eta bizigarriagoa izan zedin nire ekarpena udaletik egiteko aukerari ilusioz heldu nion. Baina, ondoren etorri den guztia, irudikatu nezakeena baino zoragarriagoa izan da.

Emaitzekin itsututa bizi garen gizarte honetan, bideak egiten gaituela sinisten dut, eta egin dugun bidez oso pozik nago. Gustura. Lasai.

Atzera begiratu eta, begiak ixtearekin batera, hauteskunde gauera joaten da nire bihotza. Gau magikoa, sekula ahaztuko ez duguna. Egun hartako babes eta maitasunaren indarrarekin kudeatu ditugu lau urte hauek, nolanahikoak izan ez diren arren. Udalaren eguneroko jardunari batu zaizkie mundu mailako osasun krisia eta krisi energetikoa, langileen estabilitazio prozesuak, etab. Erronka oso handiak, baina bakoitza zegokion arduraz eta konpromisoaz eraman dugu aurrera.

Legealdia ixtear gaudela, eskerrak eman nahi dizkizuet boto bidez guregan konfiantza jarri zenuten guztiei. Zuei esker izan da posible egin dugun guztia! Bihotzez eskertu nahi dut udalera etorri zareten norbanako bakoitza. Berdin zait zein iritzi, kolore, berezitasun. Alkate izatea horixe baita, edonor, edonola, berdintasunean hartzea. Plazera izan da zuek gertuagotik ezagutzeko aukera izatea, betiko aberastuko nauena.

Nire aitortza baita ere udaleko langile guztiei, lau urte emankor hauetan behar izan dudan aldiro hor sentitu zaituztedalako. Eta zinegotzi eta, batez ere, lagun izan zareten taldeari, eskerrik asko bihotz-bihotzez.

Nire begirunea ere udalean kide izan ditudan beste alderdietako bozeramaile eta zinegotziei. Belarriak besteei irekita izateak loreak sortzen baititu aho bakoitzean. Baina, batez ere, nire eskertza Orioko herriari, maite dugun herri honi!

Ohore handia izan da zuretzat eta zurekin lan egitea eta horretan jarraituko dut. ■■■

JAI OBERRIAK

• Danel Etxezarretan Yeregi.

Orion, martxoaren 19an.

• India Madariaga Aramendi.

Orion, apirilaren 3an.

HILDAKOAK

• Nekane Amas Olaizola.

Orion, martxoaren 25ean. 71 urte.

• Pilar Iburguren Unsain.

Aian, apirilaren 1ean. 81 urte.

• Mari Karmen Peña Joaristi.

Orion, apirilaren 7an. 81 urte.

• M. Dolores Urretabizkaia

Jauregi. Orion, apirilaren 12an.

77 urte.

• Itziar Etxeberria Urkizu.

Orion, apirilaren 21an. 90 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaioko Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio



Barruan ala kanpoan?

Otsailak 13, iritsi da eguna. 2 urteko haurra matrikulatzen da. Haurraren datuak eman ditut eta galdetegi bat pasarazi didate. Galdera kuriosoa iruditu zaizkit: etxeko gela eta bainugela kopurua, interneteko konexiorik, Netflix moduko plataformarik ote dudan, liburu kopurua eta baita Cervantesen edo Shakespearen libururik dudan, besteak beste. Galdetegi horrek neurtuko du zaurgarritasun-indizea eta horren baitan izango du haurrak plaza aukeratutako ikastetxean. Ezer ez da ziurra. Itxaron egin behar. Banoa etxera.

Martxoak 27, urduritasuna. Bihar aterako dira ikastetxe bakoitzean onartutako haurren behin-behineko zerrendak. Barruan ala kanpoan ote dago? Ezin jakin, eta kezkatuta nago.

Martxoak 28, iritsi da eguna. Gaur jakin dut haurra aukeratutako zentroan onartua izan dela. Barruan gaude. A ze lasaitua. Ez dugu arazorik, libratu gara.

Apirilak 19, urduritasuna berriz. Bihar publikatuko dira behin betikoak. Barruan jarraitzea espero dut.

Kasurik onenean, horrela bizitu dute matrikulazioa 2 urteko haurrak dituzten familiek. Ez da horrela izan beste hainbat herritan. Zeresan handia eman dute Zarauzko,


Oñatiko edo Ibarako kasuek, esaterako.

Hezkuntza Sailak segregazioari aurre egiteko, familien zaurgarritasun-indizea modu arinean ebaluatu du programa informatiko baten emaitzetan oinarrituta. Emaitza horien arabera, familien nahi eta eskubideen gainetik, ikasleak ikastetxe batetik bestera mugitzeko agindu du.

Argi utzi nahi dugu Ikastolok ez garela segregazioaren erantzule. Ikastolarik ez dagoen herrietan ere, ikastetxe publiko batetik bestera zaurgarritasun-maila oso desberdinak daude. Ikastolok beti adierazi dugu Euskal Herrirako hezkuntza sistema propio baten beharra dagoela, batetik, segregazioa bezalako arazoei irtenbide integralak emateko eta, bestetik, euskara eta euskal

**ARGI UTZI NAHI DUGU
IKASTOLOK EZ GARELA
SEGREGAZIOAREN
ERANTZULE**

HAUXE BAI JENEROA!



PUNTUA JARRITA

kulturaren transmisio egokia bermatzeko. Sinisten dugu euskarak baduela lurralde bat, eta beti aldarrikatu dugu Euskal Herri osorako hezkuntza sistema publiko bat bermatuko duen Hezkuntza Lege berria behar dugula, inongo administrazioen esanetara egongo ez dena.

Ikastolok segregazioaren arazoa konpontzeko bidelagun izan nahi dugu. Baina ikasle zaurgarriak izendatzeko moduak eta gardentasun faltak kezkatzen gaitu. Pentsatzen jarrita gaude, zaurgarritasun indizea deituriko hori, ez ote den erabili ikasleen fluxuak noranzko konkretuan bideratzeko. Ikastolok mugak besterik ez ditugu jaso, eta familiak beste ikastetxe batzuetara bideratzeak desagertzera kondenatzen

gaitu, euskararen eta euskal hezkuntza sistemaren kaltetan.

Datozen urteetan, Orioko Herri Ikastolako parte izan nahi duten familia batzuei ikastolako ateak itxiko dizkie Hezkuntza Sailak. Ikastolaren DNA herritarra da, herritik eta herriarentzat sortua. Oriotik eta Oriorentzat. Hezkuntza zerbitzu publikoa eskaintzen duen ikastola gara, titurlartasuna administrazioarena ez izanda ere. Euskal Herri osoaren naziotasuna (Nafarroa eta Iparraldea barne) aintzat hartzen duen ikastola aintzindaria eta pedagogia aurrerakoa duen proiektua gara.

Apirilak 20, iritsi da eguna. Behin betiko zerrendak publikatuko dira. Barruan ala kanpoan ote dago nire haurra? ■■■

Bertsolaria: Ainhoa Mateos.
Doinua: Gazteak Lizargatez.

1
Asko aldatu al da neskentzat kirola?

Lehen ez eskubaloï, ez eta futbola. Orain zenbat elkarte (e)ta kirol eskola, hori ikuste hutsaz borborka odola.

2
Emakumeak dantzan, surfean, korrika, arraunean, piraguan, pelota(r)i segika, eskubaloian edo baloia(r)i ostika, berdintasunerantz gutxika-gutxika.

3
Orion bertan bada makina aukera, asko aldatu zaigu lehengo egoera. Beraz lotsarik gabe etxetik atera, normaliza dezagun guztiok batera.

Hurrengo bertsolaria: Unai Manterola (apaiza).
Puntua: Organo emaillek bizitzak salbatu. ■■■



Carmen Gil: "Ni Palentziakoa naiz, baina euskara da gure seme-alaben ama hizkuntza"

TESTUA: JABIER ZABALETA

Carmen Gil Robles Palentzia hirian jaioa da eta orain dela bost urte etorri zen Oriora bizitzera. Gaur egun Orioko euskaltegian dabil, C1 mailako ikastaroa egiten.

Noiz etorri zinen Euskal Herrira? Eta Oriora?

18 urterekin etorri nintzen aurreneko aldiz Euskal Herrira, Donostian ikasi nuen-eta Psikologia. Behin ikasketak bukatuta, batean eta bestean ibili nintzen eta, azkenean, Nafarroan jarri nintzen bizitzen bikotekidearekin. Nafarroako iparraldeko herri txiki-txiki batean bizi ginen, Usunen, Arbaiungo arroilaren ondoan, eta, familia izan genuenean, Oriora etorri ginen, haurrak hazteko toki ona iruditzen zitzaigulako eta oso gustukoa genuelako.

Noiz hasi zinen euskara ikasten? Ikasle denboran?

Ez, ez... Donostian ikasten ari nintzela, ez nuen euskara ikasi. Oriora etorritakoan, ordea, beharrezkoa ikusi nuen: batetik, ni psikologoa naiz eta nire ibilbide profesionala hemen egiteko, garbi neukan oso ondo etorriko zitzaidala euskara jakitea; eta, bestetik, asko gustatzen zait euskara eta oso lagungarria da hemen bizitzeko. Lehenbiziko urtea, hala ere, zorarena izan zen: alaba txikia

zen, semeak hilabete gutxi batzuk zituen eta, euskara ikastearekin batera, tesia egiten ere ari nintzen. Oso estresantea izan zen!

Bi urtez ikasi eta gero, UNEDek eskaintzen zuen C1 mailako azterketa gainditu nuen eta, horri esker, unibertsitatean lanean hasi nintzen klaseak ematen. Gero, zoritxarrez, C1 titulu hura ez homologatzea erabaki zuten, eta orain berriro nabil euskaltegian, titulu homologatua ateratzeko. Nahiko amorragarria izan da hori, egia esan.

Bestela, erraza egin al zaizu euskara ikastea?

Oso prozesu polita izan da niretzat. Gogo handia jarri nion, euskara asko gustatzen zaidalako eta nahiko arin egin dut bidea: nire bikotekidea ere euskalduna da, eta Orion erraza da euskara praktikatzeko. Euskara ikastea, gainera, oso esker onekoa da, jendeak asko estimatzen du-eta egiten duzun



ahalegina. Gaur egun, asko hitz egiten dut euskaraz nire inguruan; nirekin tratua duten euskaldunekin euskaraz egiten dut normalean, kalean, parkean, dendetan...

Eta seme-alabekin?

Seme-alabekin ere euskaraz egiten dut beti. Oso modu naturalean irten zait seme-alabei euskaraz egitea; ez da esfortzu bat izan. Gure seme-alaben ama hizkuntza euskara da, eta ez zait batere kostatu hori hala izatea. Bikotekidea eta biok ere saiatzen gara elkarri euskaraz egiten gero eta gehiago, baina aitortu behar dut hori zailagoa egiten zaigula, azken batean gaztelaniaz ezagutu genuen-eta elkar. ■

Zer eskatuko zenieke udal hauteskundeetara aurkeztu diren hautagaiei?




KRISTINA SALSAMENDI

"Uste dut politikariek herritarron beharrak asetzeko egitasmoak antolatu behar dituztela. Horretarako, ezinbestekoa da herritarroi iritzia eskatzea, eta beharrezkoa, hautagaiek gure proposamenak betetzeko konpromisoa hartzea. Herritarron bizimodua hobetzeak izan behar du helburua, eta uste dut zerbitzuak eta herriko kultur eskaintza indartzeko ahalegina egin behar luketela. Herrian adin guztietako herritarrei zuzendutako eskaintza nahi nuke, baita adineko jendeari zuzendutakoa ere; Oriorentzat oso aberasgarria izango litzateke adinekoentzat jarduerak eta tailerrak antolatzea. Adinekoek zer behar dituzten jakiteko, ordea, horiek biltzen diren gunetara jo behar da, ez baitute balio gazteagoekin erabiltzen diren kanalek".



BEÑAT HOYOS

"Hasteko eta behin, udal hauteskundeetan bozkatzea oso garrantzitsua iruditzen zait, azken finean, datozen lau urteetarako herriaren ordezkari izango direnak aukeratzen ari baikara, eta herritar ororen eskubidea izan beharko luke horrek, leku guztietan. Bozkatzearen garrantzia alde batera utzita, etorkizuneko alkateari eskatuko nioke txakurrak aske ibiltzeko leku apropos bat ezartzea herrian bertan. Izan ere, zelaia baditugun arren, egunerokotasunean txakurrekin ibiltzeko eremu aske bat faltan sumatzen dut kaskoan. Gainera, gero eta txakur gehiago daude leku guztietan; hori nabaria da kalera ateratakoan. Horregatik, etorkizun hurbil batean gaia mahai gainean jartzea gustatuko litzaidake, eta baita auziari irtenbidea ematea ere".



MITXEL MURUA

"Oso gustura nago Orioko Udalak azken agintaldian hartu duen martxarekin. Gustura bizi naiz herrian, eta iruditzen zait gauza asko hobetu direla azken urteotan. Esaterako, plaza ingurua oso txukun geratu da; eta laster, moilako pasabidea ere berrituko dute. Proiektu garrantzitsuak jorratzen ari dira, eta Orio norabide onean doala iruditzen zait. Horrez gain, Anuska Esnal alkateak orain arte egin duen lana ere gustatzen zait; uste dut udalean gardentasunez ari dela lanean. Horren adibide dira antolatzen dituzten parte-hartze prozesuak eta bilera informatiboak, herritarrok kezkatzen gaituzten gauzak argitzeko balio baitute. Bide horretatik jarraitzeko eskatuko nieke hautagaiei, oriotarrei entzunez". ■■■

"Gustuko nuen taxian jendearekin hitz egitea eta kantatzea"

JOSE IGNACIO ALUSTIZA 'PALAZIYO' TAXILARI OHIA

Urtebete igaro da 'Palaziyo' (Aia, 1957) taxilari lanak utzi zituenetik. Taxi gidari ez ezik, autobus gidari ere izana da aiarra. Hain zuzen ere, gurpil gainean urte askoz ibili izanagatik ezagutzen dute herritar askok.

Trikiti doinuek lagunduta, ehunka kilometro eta harreman estu egin ditu.

Testua: **Andrea Zipitria**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Jose Ignacio Alustiza *Palaziyo* sei anai-arrebetatik mutilezko bakarra da. Txikitatik zorte handia izan duela dio, Laurgain auzoko jauregian bizitzeagatik alde batetik, eta horren ondorioz, bestetik, *Palaziyo* ezizena egokitzeagatik, eta "ez beste edonolako izenik". Urtebete igaro da erretiroa hartu zuenetik. Askorentzat ez du aurkezpenik ere behar: Aiako zein inguruetakoa herritarren autobus gidari izan da urte askotan; azkenengo hamarkadan, berriz, taxiarekin ibiltzen zen handik eta hemendik. Hori bai, beti trikiti doinuek lagunduta. Urte horietan guztietan pasatako hamaika kontakizun ditu orain, behin erretiratuta, kontatzeko.

Nolatan pasatu zinen autobus gidari izatetik taxilari izatera?

Ezkundu egin nintzen, eta autobusa uzteko momentua iritsi zen; urte sabatikoa hartu nahi nuen eta... Bada, horren ondoren, Aiako brigadan hasi nintzen lanean; lau urtez aritu nintzen, hori ere bukatu egin zitzaidan arte. Orduan Balerdi zen herriko taxilaria, eta erretiroa hartu behar zuela

esan zidan. Aukera ona iruditu zitzaidan, eta halaxe hasi nintzen taxilari lanak egiten.

Hiruretatik, zure ogibiderik gustukoena aukeratzen jakingo zenuke?

Hiru horietatik brigadakoa da lanik errazena. Izan ere, asteko bost egunetan lana egin eta asteburu osoa libre izaten nuen. Beste bi ogibideek ez dute horretarako aukerarik ematen, baina tira, lanbide guztietan bezala, beti daude alde onak eta txarrak. Bigarren postuan jarriko nuke taxilari izatearena; autobusekoa baino gertuagoko harremana sortzen zen taxiarekin. Azken finean, askoz pertsona gutxiago kabitzen ziren autobusarekin alderatuz, eta nik uste hori nabaritu egiten zela harremanetan. Horrez gain, taxilari moduan lanean ari nintzen guztietan lo egitera etxera itzultzen nintzen, baina autobus gidari gisa, bidaia asko luzeak izaten ziren. Askotan igarotzen genituen bi aste etxetik kanpo, eta hori ez nuen hain ondo eramaten.

Taxia jarri duzu hurrenkeran bigarren. Hala ere, zure taxia bazen nahiko autobusa...



Bai, halaxe da. Bederatzi pertsonarentzako lekua zuen, eta ez hori bakarrik; oraingo furgonetekin konparatuta zabala zen oso.

Aiarren eta oriotarren artean, hain zuzen ere, gurpil gainean ibiltzeagatik egin zinen ezaguna...

Bai. Azkenean, bertako haur asko ikusi ditut hazten; eskoletara eta institutueta bidaia asko egiten nituen. Nik uste hainbat urtetan egunero-egunero izan nintzela beraien eguneroko autobus gidari eta, azkenean, hortik herritar askok ezagutu naute. Azken urteetan gazteekin ere bidaia asko egin ditut sagardotegietatik bueltan. Bazkariren bat izaten zuten kuadrillek ere askotan deitzen zidaten bila joateko... Oraingo umeen artean, orde, ez naiz oso ezaguna izango, erretiroa hartu baitut jada.

Zehazki, noiz hartu duzu erretiroa?

Maiatzean urtea beteko da erretiroa hartu nuela. Berez, pasa den urteko martxoan hartu behar nuen, baina aurrez saldu egin nahi nuen taxi lizentzia, eta egia esanda, nahikoa kostatu zait.

Lehen esan duzu zure lanik gustukoena brigadakoa izan dela, baina hainbeste denbora gidari lanetan arituta... Alde onik bilatuko diozu ba, ezta?

Bai, noski. Gustuko nuen jendearekin hitz egitea eta kantatzea. Orokorrean, jendearekin hartu-eman hori edukitzea polita zen niretzat. Herritar askok bizitza osotik ezagutuko banindute bezala egiten zidaten kasu; asko eskertzen nuen hori.

Oriotarrak ala aiarrak, nortzuk portatzen ziren hobekien?

Kar-kar-kar. Hor ez naiz sartuko, baina orokorrean, jende oso onarekin egin nuen topo egunerokotasunean, errespetuz tratatzen ninduten. Dena den, taxilari nintzen garaietan bazen amorru handia ematen zidan gauza bat...

Zer?

Hainbat kuadrillak deitzen zidaten ordu txikitan beraien bila joateko nahiko urrutira. Nik baiezkoa ematen nien, baina lekura iritsitakoan, behin baino gehiagotan gertatu zitzaidan geratuta geunden lekura inor ez ahalztea.

Anekdotak ere izango dituzu...

Bai, autobus gidaria nintzenean, esaterako, Orion sokamuturra egiten zen, eta behin hori ikustera jaitsi nintzen. Ni, ustez, nahiko urruti nengoen jarrita, baina kontua da zezenak harrapatu egin ninduela, eta hurrengo bi asteetan gutxienez, eskolako haurrak kantari hasten ziren autobusera sartu orduko. Zera esaten zidaten: *si te ha pillado el toro jodete*.

Baina taxilari garaietako anekdotarik baduzu?

Baita ere. Taxi gidari batek, normalean, herritarrak hara eta hona eramaten egiten du lan, baina nik bestelako lanak ere egin izan ditut. Aiako baserri batzuetatik deitzen zidaten pentzua eramateko. Behin, adibidez, baserritar batek deitu zidan esanez Villabona-Amasako denda batean medikamentu espezial bat zegoela eta hori behar zuela. Han joan nintzen ni taxia hartuta, medikamentu haren bila. Horiek guztiek bidaia txintxo-txintxo egiten zuten, isilik joaten ziren beti, lan asko eman gabe, kar-kar-kar.

Txanogorri aipatu gabe utzi behar al duzu?

Horren *errua* Mikel Markezek du. Afari batean ginen biok, eta Aiako hainbat kantu galtzear zeudela eta, disko bat egiteko ideia sortu zen. Lau haizetara zabaldu genuen asmoa, eta hainbat auzotatik gurekin harremanetan jarri ziren kantuak bazituztela eta esaten. Bada, azkenean, bi kantu grabatu nituen nik Mikel Markezekin: *Herriko festak* eta zuk aipatutako *Txanogorri*. Nonbait, askok ezagutu egin zuten nire ahotsa, eta taxilari garaietan autora sartu orduko askok eskatzen zidaten kantu hura jartzeko, eta kantatzeko. Eta, nola ez, ni kantuan hasi behar, goizeko 03:00 baziren ere. Esan beharra daukat hori sagardotegi garaietan eskatzen zidatela gehienbat.

Aiako abestiena al zen orduan bidaiarien disko faboritoena?

Faboritoena ez dakit, baina gehien eskatzen zidatena, bai. Gero kontua da, hainbeste urtetan gehiegitan erabili nuela diskoa, eta ez dakit kotxearen bibrazioak ere eragina ez ote zuen, baina diskoa urratu egin zen. Berdin-berdin jartzen nuen. Bertsio elektronikoa atera zuen ondoren Mikel Markezek. Ikaragarri gustatzen zitzaidan bertsio hura. Kontua da, hura ere hainbeste urteren ondoren ez zela batere ondo entzuten, eta nik Mikel Markezi esan nion berriz grabatu beharko zidala.

Trikiti kantak ere ez ziren atzean gelditzen zure taxi zein autobusean...

Trikiti doinuek asko emozionatu izan naute betidanik. Batzuek nahiago izaten dituzte beste estilo batzuk, baina nirea trikitixa da. Nik ere jotzen dut, duela 40 urte inguru hasi nintzen. Zarautzen izaten nituen eskolak Martinekin, baina gero Villabonara joateko erabakia hartu zuen hark, eta hortxe geratu zen guztia. Batzuek, denborak aurrera egin ahala, jotzea utzi egiten dute, baina nik jarraitu egiten dut. Hori bai, maila



**"LAURGAINGO JAUREGIAN JAIO
GINEN SEI ANAI-ARREBA, BAINA NIRI
DEITZEN DIDATE *PALAZIYO*"**

**"ZEZENAK HARRAPATU ZIDANEAN BI
ASTEZ *SI TE HA PILLADO EL TORO*
JODETE KANTATZEN ZIDATEN"**

**"TRIKITI DOINUEK EMOZIONATU
EGITEN NAUTE ETA HORIEK ZIREN
NIRE BIDAIAETAKO PROTAGONISTA"**

berean; ez dut okertu ez hobetu trikitixa jotzen. Orain jubilatuta naizela, hasi beharko dut gehiago praktikatzeko. Usurbilgo ilobak esan ohi dit erakutsiko didala.

Taxi palaziyo. Zure ezizena zeraman taxiak ere...

Bai, Laurgain auzoko jauregian jaio ginen etxeko sei seme-alabak. Jauregiak badu nagusia, baina gu, jauregiko zaintzaileak, bertan jaio ginen. Esan bezala, sei anai-arreba ginen, ni neu mutilezko bakarra. Eta *Palaziyo* ezizenez niri bakarrik deitzen didate; arrebei ez. Ez galdetu zergatik... Tira, Aian, ordea, nahiko normala dela esango nuke etxearen edo baserriaren izenez deitzea familiari. Alde batetik, nik zorte ona izan nuen ezizenari dagokionez. Herrian badira ezizen ez oso politak; *Auzokalte*, esaterako, kar-kar-kar.

Etxeko mutil bakarra orduan, zu. Ondo moldatzen al zinen arrebeekin?

Bai, 16 urte arte errieta egiten zidaten: "Hi, festara joaten hasi beharko dek", esaten zidaten; jaietara joaten ez nintzelako. Gero, ordea, liskarra izaten genuen ez nintzelako etxera bueltan etortzen. Beti errieta egin behar, kar-kar-kar. Tarteko zerbait bilatu behar nuen eta, nik, nonbait, muga hori



pasatu egin nuen. Etxean geratzen nintzenean etxetik mugitu ere ez nintzelako egiten, eta parrandan hasi nintzenean, ikusi ere egiten ez nindutelako istilua; hau da hau, marka.

Nola gogoratzen dituzu palaziyoko urteak?

Oso onak izan ziren. Bertan jaio nintzen.

Jauregiak sala handiak ditu, eta hantxe ibiltzen ginen handik eta hemendik jolasean. Egun ere joaten naiz bertara, baina ez naiz hor bizi. Orain salgai dago, beno, denbora dezente doa salmentan, eta horrek izugarritzko pena ematen dit pertsonalki. Diputazioari ere aukera eman zioten, jauregia erosteko, baina ez zuen nahi izan. Erakusteko eta oso leku polita da benetan, hor azaldu zen baita ere duela urte batzuk, Elkanoren karta bat. Horren inguruan duda asko daude. Jauregi honen famili jabeek, Seguran beste jauregi bat zuen, eta hori herriari eman zioten. Orduantxe, kamioia hartu eta Segurara joan ginen, jauregiko gauza guztiak Aiara ekartzeko asmoz. Altzariak, liburuak, liburutegiak... gauza asko ekarri genituen

Laurgainera. Bada, Segurako liburutegiak Aian muntatzen hasi ginen, eta liburuak eta halako gauzak sailkatzeko bi aditu etorri ziren. Lan horretan ari zirela aurkitu zuten karta hori; orain ez dakit lehendik zegoen Aian ala Seguratik ekarria izan zen, seguru ez dakigu.

Joango al zinateke Laurgain auzotik beste lekuren batera bizitzera?

Aiako kaskora bizitzera joan nahiko luketen esan diet seme-alabei. Hamabost eta hamabi urte dituzte orain, eta bueltaka ibiltzen naiz. Leku batetik bestera eramateko eskatzen didate, erretiratuta egonda ere taxista lanak egiten jarraitzen dut. Hamabost ditu semeak, eta dagoeneko hasi dira bere hainbat lagun festara eta joaten, bera momentuz, Aia inguruan ibiltzen da. Gero ni bezalakoxea izango da eta hor izango ditugu komeriak. Zigarroa jada gutxi erretzen dut, baina lehen errieta egiten zidan semeak, erretzea uzteko eskatzen zidan. Nik esaten nion, agian erretzea ezingo dut utzi guztiz, baina hi ez ari hasi!. Ikusiko dugu zer gertatzen den. ■■■

LEHIAKETA

NIN DAGO? KARKARA?

Aurkitu Karkara pertsonaia aldizkarian.

Erantzuna **karkara@karkara.eus** helbidera
maiatzaren 22a baino lehen.

Saria: Gañeta txakolin kaxa bat.

Karkarako Komunikazio Taldean **bazkide** izatea da baldintza bakarra.



19. orrialdean
zegoen ezkutatuta.

Ignazio Lertxundi
bazkidea izan da irabazlea.

PUBLIZITATEA

Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia

SU KIA
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29

Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16
Orio

943 89 92 43 / kaixo@zaragueta.eus
www.zaragueta.eus

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

BERAZADI BERRI
ERRETEGIA

Berazadi Berri Erretegian, zerbitzaria behar da

Interesatuak idatzi whatsapp zenbakira:
600 22 00 49

bertako
igogailuak | ascensores

Benetako orotariko zerbitzua
100€-tik/hileko

Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzena

+2.000 bezerak gudan dute konfiantza
943 903 450 bertako.eus

IBER glass 
Automobilaren kristaleria
Errotulazioa
Hitzordua 689 34 11 01
edo LAIARANen

LA IARAN
Lanerako arropak
5XL arteko tailak
PERTSONALIZAZIOA

Estropalari, 12

ZARAUZKO BEILATOKI-ERRAUSKAILUA

Zarauzko Beilatoki-Errauskailuak errausketa-labea du orain, eta zerbitzu integrala eskaintzen du betiko profesionalekin eta instalazio moderno, eraginkor eta argitsuekin.

Betiko zerbitzu bikaina espazio berri batean.
943 894 937 / 943 422 129 (24h) | memora.es
Abendaño Kalea, 2 - Zarautz

m **memora** Zarautz Hileta Zerbitzuak

Prokrastinazioa



ARITZ PARDINA

Prokrastinazioa —hots, eginkizunak gerorako uztea— modako hitza eta jarduera dugu, inoiz ez baita izan gaur egun bezain erraza gure egitekoak atzeratzea. Nahi gabe ere egiten dugu. Horren atzean, noski, mundu digitalaren eragina dago, sarritan, haren ondorioz uzten baititugu gure betebeharrak bihar-etzirako. Mugikorra gutxien erabiltzen duenari ere, gailuaren ezarpenetako "ongizate digitala" atalean begiratuko balu, harridura sortuko lioke egunean pantailari eskaintzen dion denborak. Zenbat lan aurreratuko genituzke denbora horretan?

Baina guztia ez da txarra, hemen ere, askotan bezala, arazoa irtenbidearen iturria izan baitaiteke. Aurreko astean, uste horri irmo helduta (eta liburu bat mesanotxean hautsa hartzen ari zitzaidanez), egitekoak ez gibelatzeko argibideak bilatu nituen YouTube-n. Eta baita aurkitu ere: zehazki, *Prokrastinazioa eta nagitasuna ezabatze*ko 10 trikimailu eta aholku izeneko bideoa (ez horregatik). Bertako tipoak azaldu zuenez, ohitura eta jokabide txikiak zuzentzea da kontua; teknikak barneratzea eta aplikatzea, azken batean. Hura lasaitua, nirea.

Hala, denborari etekina ateratzeko gakoak ikasten ari nintzela, agian jada lasai nengoelako, begiradaren fokua zertxobait hedatu nuen. Orduan, eskuin izkinan lotura hau ikusi nuen: "Leo Messik mundua aho zabalik utzi zuen eguna". Ez didazue esango, izenburu horrekin, bideoa ikusi gabe utz zitekeenik. Hortaz, bideoa klikatu nuen eta, aizue, ez naiz batere damutzen: hori da hori futboleko jokatzeko.

Bideoaren erdian, ordea, zalantza piztu zitzaidan: Twitterren jarraitzen al nuen futbolari argentinarra? Eta erantzunaren bila, sare sozial horretan sartu nintzen. Baina, aplikazioa irekitzearekin bat, berri honekin egin nuen topo, parez pare: "Shakirak Piquéri botatako azken *zaska*". Eskuak igurtzi nituen. Izan ere, nola eutsi tentazioari? Eta bai: ederki entretenitu nintzen kantari kolonbiarrak abestien bitartez ex-ari erdi-ekutuan bidalitako mezuekin. Azken lerroa arte irakurri nuen artikulua; hori bai, beheko aldean zetorren abestiaren lehen bost segundoak nahikoak izan zitzaizkidan orrialdetik izututa alde egiteko.

Orduan, pantailari behera egin nion eta, bateko bideoak eta besteko iruzkin mamitsuak, jada Messirekin erabat ahaztuta nengibilen sare korapilatsuan. Hala ari nintzela, blog batekin egin nuen topo: "Ludwig Wittgenstein XX. mendeko filosofo garrantzitsuenetakoa da. Hemen dituzue haren pentsamendua ulertzeko hamar gako". Interesgarria, e? Bada, edonork egingo zukeen moduan, azalpen horiek irakurtzen jardun nuen, harik eta berandu zela konturatu nintzen arte. Azkenik, mugikorra kargatzen jarri eta oheratu nintzen.

Pozik oheratu ere. Izan ere, jada eskuratu nuen prokrastinazioa ekiditeko oinarritzko jakinduria. Mesanotzeko liburuari ekingo nion hurrengo egunean. ■■■

**INOIZ EZ DA GAUR
EGUN BEZAIN ERRAZA
IZAN GURE EGITEKOAK
ATZERATZEA**




MUGARIK EZAGUTZEN EZ DUEN HARRIBITXIA

Mikel Morris eta Hiromi Yoshida
HIZKUNTZALARIAK

Txikia bere handitasunean, munduko hizkuntzen artean dagoen *rara avis*-etako bat da euskara. Euskal Herriko zazpi lurraldeetan hitz egiten da hizkuntza, baina ez da euskal jatorrikoa izan behar euskara ikasteko, hitz egiteko, harekin bizitzeko, erabiltzeko eta maitatzeko. Hiromi Yoshida japoniarra eta Mikel Morris estatubatuarra dira horren adibideetako bi. Hizkuntzalariak biak, euskara ikasteko hautua egin dute biek.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Alex Berasategi**.



Coloradon jaioa, Zarautzen bizi da Mikel Morris (Denver, Colorado, AEB, 1957). Ingeleseko akademia bat dauka kostaldeko herrian, eta euskara eta ingeleseko Morris hiztegiaren sortzailea ere bada. Hiromi Yoshidak (Yuzawa, Japonia, 1960), berriz, Japoniako bi unibertsitatetan egiten du lan linguistika eta euskara eskolak ematen. Tokion bizi da, baina urtean pare bat aldiz joan ohi da Azpeitira. Bidaia horietako bat aprobetxatuta bildu ditu GUKAk bi protagonistak Azpeitiko Basazabal jauregian, eta beraien esperientziez, eta, oro har, euskaraz aritu dira hizketan.

Nor da Hiromi Yoshida eta nor Mikel Morris?

Hiromi Yoshida: Japoniarra naiz, eta Tokion bizi naiz. Ez naiz Euskal Herrian bizi, baina urtean bitan-edo etortzen naiz—pandemia garaian ez; orduan ezin izan nuen etorri—. Orain dela urte asko, Tokion hasi nintzen euskara ikasten. Suzuko Tamura zen gure irakaslea; Euskal Herrian ere nahiko ezaguna zen Suzuko [hizkuntzalari japoniarra 2000. urtean egin zuten ohorezko euskaltzain]. Bost lagun aritu ginen haren saioak jasotzen, baina ez irakasgai

moduan; izan ere, Suzukok nahi zuelako ematen zituen euskarako klaseak, euskara ikasteko taldetxo bat sortu nahi zuelako. Gerora, euskara ikasten jarraitu nuen, baina mintzapraktika egitea eta entzumen lantzea oso zaila egiten zitzaidan Tokion. Hori dela-eta erabaki nuen Euskal Herrira etortzea. Lazkaora [Gipuzkoa] joan nintzen, hango Maizpide euskaltegira; hamar hilabetez aritu nintzen barne-tegi hartan euskara ikasten. Gero, Tokiora itzuli eta unibertsitate masterra egiteko prozesuan sartu nintzen, linguistikako departamentuan. Nire lanerako gaia euskara zen, baina ez nuen nahi euskara batua lantzea, euskalki bat hautatu nahi nuen. Tokion, kasualitatez, Azpeitiko mutil bat ezagutu nuen; laguntza eskatu nion hari, eta Azpeitiko euskararen inguruko lanketa egin nuen. Hari esker bukatu nuen masterra, eta Azpeitiko euskararen inguruan egin nuen tesia ere. Orain, bi unibertsitatetan egiten dut lan linguistika eta euskara klaseak ematen.

Mikel Morris: Nire kasua oso bitxia da. Euskal Herrira lehendabizikoz 18 urte nituela etorri nintzen, Francoren bizitzako azken urtean, 1975ean. Kasualitatez, Mendietan [Nafarroa] nengoela entzun nuen lehen aldiz euskara. "Zer da hori?", pentsatu nuen neure baitan, eta pixkanaka aztertzen hasi nintzen. AEBetara itzuli nintzen, eta han nengoela erabaki nuen Euskal Herrira bueltatzea. Zorionez, Iruñeko lagunak nituen ordurako, eta haiek Lazkaora [Gipuzkoa] joatea gomendatu zidaten; garai hartan, baina, oraindik ez zegoen martxan Maizpide barne-tegia. Beasainen [Gipuzkoa] bizi izan nintzen, eta gero, Ataungo [Gipuzkoa] baserri batean ere egon nintzen. *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* liburuan jasota dagoen egoeraren antzekoa zen nirea, baina erromantzerik gabe. Gero, nire bizitzako proiektua izango zenarekin hasi nintzen, hiztegiarekin, alegia. Nik ez nekien hiztegi bat nola egiten zen, baina hori nork daki! 19 urte jo eta ke aritu ondoren bukatu nuen proiektua. Euskal Herritar batekin ezkondu nintzen, hiru seme-alaba ditut, Zarautzen bizi naiz eta ingelesakademia bat daukat.

Euskara lehen aldiz entzutean, zer sentipen izan zenituzten? Hizkuntza erabat arrotza izango zen zuentzako, ezta?

H. Y.: Arraroa, oso arraroa egiten zitzaidan. Ezezaguna eta ezo-hikoa zen niretzako.

M. M.: Niretzako espainiera zen, baina ezertxo ez nuen ulertzen; tutik ere ez.

Euskal kulturara hurreratzeko lehen pausoa izan al zen euskara? Edo aurretik bazenuten euskal kulturaz edo Euskal Herriaz zertzeladarik?

H. Y.: Niri hizkuntza bera interesatzen zitzaidan. Linguistika ikasten ari nintzen, eta mundu horretan genbiltzanontzako oso ezaguna zen euskara. Banekien euskara izeneko hizkuntza bat existitzen zela. Nire lehen helburua euskara bera izan zen.

M. M.: Banekien euskaldunak bazirela, filmen birtatez jakinda. Bazen euskaldunak agertzen ziren film bat; buruan txapela zutela, haitzetan saltoka, indiarak hiltzen, beti irrintzika. "Zein dira hauek?", pentsatzen nuen neure artean. Bestalde, 9 urte nituela *basque* hitza aurkitu nuen entziklopedia batean, eta euskaldunak oso misteriotsuak zirela zioen. Gerora, Euskal Herrira etorri nintzen, eta *basque* horiek, euskaldunak, ikusi nituen.

Bitxia ere bada Japonian, Euskal Herriatik milaka kilometrorra, hain urruti, euskara ezagutzea, ezta?

H. Y.: Linguistikaren munduan nenbilelako izan nuen euskararen berri. Nire inguruko zen jendeak ere aukeratzen zituen hizkuntza txikiak ikasteko. Horregatik, niretzako ez da batere harrigarria hizkuntza minoritario bat aukeratzea.

Agian, euskaldunak harritzen dira euskara bezalako hizkuntza txiki bat ezaguna delako mundu mailan.

M. M.: Ez zarete konturatzen, baina euskara oso famatua da hizkuntzalarien artean. Ni ere hizkuntzalaria naiz, eta euskara oso arraroa da, harribitxia da. Bada hizkuntza bat Pakistanen, burushaski izenekoa, Gilgit-Baltistan eskualdean hitz egiten dena. Bada, inork ez daki zer jatorri duten burushaskiak eta euskarak. Zer ote dira hizkuntza horiek?

H. Y.: Euskara baino txikiagoak diren hizkuntza asko daude munduan.

Behin euskara ikasteko pausoa emanda, zer egin zitzazuen zailena?

H. Y.: Aditzen sistema ikastea ez zitzaidan hain zaila egin. Agian, gauzak buruz ikastea kostatu zitzaidan gehien.

M. M.: Hitzen ordena ikastea egiten zitzaidan zaila niri. Hiromirentzako ez da hain zaila euskarazko esaldietako hitzen ordena; izan ere, japonierazkoen antzekoa da. Baina nire kasuan, adibidez, ez da horrela: "Dendara joan nahi dut" esaldian, esaterako, ingelesaren ordenarekin alderatuta, dena alderantziz dago. Gero, gainera, gauzak pixka bat



"Linguistika ikasten ari nintzen, eta mundu honetan genbiltzanontzako oso ezaguna zen euskara"

"Hizkuntza guztiak dira zailak, eta ikasterako orduan dituzun erreferentzietan dago gakoa"

"Euskararen erabilera indartzeko euskarazko edukiak izatea oso garrantzitsua da"

Hiromi Yoshida

konplikatu egiten dira. Hemen adibide batzuk: "Ez dut dendara joan nahi" edo "ikusi dudana gizona nire aita da". Pixkanaka ohitu egiten zara, baina hasieran oso zaila egin zitzaidan guztia.

H. Y.: Mikelek esan duen bezala, hitzen ordena ikastea ez da batere zaila izan niretzat. "Atzo ikusi nuen gizona" edo "hau hori baino txikiagoa da", esaterako, halaxe, ordena horretan, esaten ditugu japoniarrez ere. Ezezko esaldietan, ordea, kristoren buelta eman behar zaie euskarazko esaldiei.

M. M.: Beste arazo bat euskalkiak izan ziren niretzat. Hasieran, aditzen forma guztiak ikasi nituen: "Edo-nori gerta dakioke", "eman diezaio beste bat", "betor beste bat"... Lagunak-eta harrituta geratzen ziren zeinen ondo hitz egiten nuen entzundakoan. Kontua da nik ez nuela beste molderik ezagutzen. Liburuetan hala zela agertzen zen, eta nik errepikatu egiten nuen. Gero konturatu nintzen herriko seme-alabek ez zekitela –esan dezagun– goi mailako euskara batu hori hitz egiten. Horregatik ez nion inori ulertzen; batua ulertzen nuen, baina herriko euskalkia ez.

Zuen inguruan euskara ikasi behar zenutela esan zenutenean, zer pentsatu zuten? Naturalizat hartu al zuten erabakia?

H. Y.: Naturalizat? Ez, ez, ezta pentsatu ere. "Zertarako behar duzu? Zertarako nahi duzu euskara?", galdetu zidaten.

M. M.: "Why?" [zergatik ingelesez], galdetzen zidaten lagunek. Euskal Herrian nintzela erabaki nuen euskara ikastea, AEBetan ikastea ezinezkoa zen eta. Gaztea nintzenean ez zegoen Internetik, eta ez zen posible euskara *online* ikastea.

Biok primeran hitz egiten duzue euskaraz. Asko kostatu al zitzaizuen hizkuntza menderatzea? Zenbat denbora behar izan zenuten?

H. Y.: Hori bai dela galdera zaila. Ez dakit zenbat denbora behar izan nuen esaten. Lazkaora joan nintzenerako gramatika nahiko ondo nekien, baina hitz egiteko arazoak nituen eta entzumenarekin ere ez nintzen ondo moldatzen. Gramatika nahiko ondo nekienez, baina, bosgarren mailan-edo sartu ninduten; besteek ondo hitz egiten zuten, baina nik ez. Maiatza izango zen hasi nintzenean, eta uste dut uztaila edo abuztua izango zela hitz egitera soltatu nintzenerako. Dena den, esan behar dut ez nuela euskara hitz egiten hasteko lotsarik izan.

M. M.: Ondo gogoan daukat urtarilean hasi nintzela euskara ikasten. Hasieran hitz solteak esaten nituen, eta zalantza asko izaten nituen, baina behin, Ataunera bidean autobusez nindoala, leherketa antzeko bat izan nuen nire barrenean, eta hizketan hasi nintzen; maiatza-edo izango zen. Egun osoan praktikatzen aritzen nintzen: ohe gainean nuen aditzen taula, eta harekin jarduten nuen. Horrela ikasi nuen euskara.

Euskara bereziki hizkuntza zaila dela esan ohi dute. Akaso, gauza bera esan daiteke munduko beste hizkuntzei buruz ere. Zer iritzi duzue?

H. Y.: Nire ustez, munduko hizkuntza guztiak dira zailak. Hizkuntza bat sistema oso konplikatu da. Denak dira zailak, eta ikasterakoan dituzun erreferentziak dira gakoa. Gaztelaniaz baldin badakizu, zuretzat oso erraza izango da italiara, frantsesa edota portugesa ikastea. Nire kasuan, baina, japoniera nondik datorren ez dakigu, eta, beraz, ez daukat beste hizkuntza bat ikasteko erreferentziarik.

M. M.: Mundu guztiak uste du espainiera oso erraza dela ikasteko. Hori gezurra da!

H. Y.: Oso zaila da. Gaztelaniaren aditz sistema oso konplikatu da.

M. M.: Nik txikitan portugesa ikasi nuen, eta horrek erraztu zidan gero espainiera ikastea. Baina portu-

gesa espainiera baino mila aldiz errazagoa zen niretzako. Euskara, berez, ez da zaila; izan ere, Hiromik esan duen bezala, hizkuntza guztiak dira zailak.

Kasu desberdina da zuetako bakoitzarena: zu, Hiromi, Tokion bizi zara; zu, Mikel, Zarautzen, eta zure egunerokoan inguruan duzu euskara.

M. M.: Ez pentsa. Akademia bat daukat, eta derri gorrez ingelesez hitz egin behar izaten dut. Nire emaztea, berriz, Iruñekoa da, eta nirekin normalean erdaraz edo ingelesez hitz egiten du. Euskaraz behar bezala hitz egiteko beharrezkoa da lagun euskaldunak edukitzea, eta batzuetan nahikoa da bost lagun egotea eta batek euskaraz ez jakitea derri gorrez espainierara jo behar izateko. Beraz, niretzat zaila da euskaraz behar bezala bizitzea, nahiz eta Zarautzen bizi naizen.

Lagun artean lehen aldiz euskaraz hitz egin zuenean harriduraz hartu al zintuzten?

M. M.: Lehen aldi hartan bai, baina ohitu dira jada. Oso ezaguna naiz Zarautzen, denek dute nire berri, herri txikia da eta.

Japonian bizita, erraza egiten al zaizu euskara maila mantentzea, Hiromi?

H. Y.: Ez zait hain zaila egiten. Euskara ikasten hasi nintzenean ez zegoen Internetik, baina orain bai. Japonian ez dut euskaraz hitz egiten, baina egunero idazten dut mezuren bat edo bi, eta irakurri ere euskaraz irakurtzen dut. Horrek asko laguntzen dit. Gainera, askotan ahozko mezuak bidaltzen ditut, eta bueltan ahozko mezuak bidaltzeko ere eskatzen diet. Arinagoa da horrela komunikatzea, eta ikasteko modu hobea da niretzat.

Zenbatetan esan dizute: "Kontxo, japoniar bat euskaraz!".

H. Y.: Hasieran, izugarritzko sorpresarekin hartzen zuen jendeak, baina orain gero eta gutxiago hartzen dira. Euskal Herrian ere, gero eta atzerritar gehiago bizi dira, asiar jatorrikoak ere bai tartean, eta haien umeak ere joaten dira ikastoletara eta haiek ere euskaraz egiten dute. Gero eta ohikoagoa bihurtu da atzerritarrek euskara hitz egitea, ez da hain harrigarria dagoeneko.

Urtean behin edo bitan etortzen zara Euskal Herrira. Zer egiten duzu bidaiari horietan?

H. Y.: Lan batzuekin etortzen naiz beti. Nire buruari gai bat jartzen diot beti, eta horri buruzko lana egiten dut. Adibidez, azpeitiar batekin aritzen naiz egunero pare bat orduz; galderak egiten dizkiot



"Ohe gainean aditzen taula bat nuen, eta horrekin egoten nintzen egun osoan. Horrela ikasi nuen euskara"

"Hiztegia egiterakoan arazo handiena hitzak biltzea eta baliokideak aurkitzea izan zen"

"Garrantzitsua da euskalduntzea, baina ez bakarrik hizkuntza aldetik, baita sentimenduen aldetik ere"

Mikel Morris

gauzak nola esaten diren-eta jakiteko. Euskal Herrira etorritakoan, normalean, Azpeitian egoten naiz, baina beste herri batzuetan ere izana naiz halako lanak egiten: Zarautzen, Zumaian edo Zestean, adibidez.

Morris izeneko euskara eta ingeles hiztegia da zure lanik ezagunena, Mikel. Nola ekin zenion proiektu horri?

M. M.: Garai hartan ez zegoen halako ezer ere. Euskarazko hiztegi gehienak oso txarrak ziren, nire uste apalean balio handirik ez dutenak. Ingeleseztako hitz edo esaldiak euskaraz nola esaten ziren galdezka ibili nintzen, eta Euskaltzaindiko kideekin ere hitz egin nuen; pentsa, hitz batzuk euskaraz nola esaten ziren ez zekiten haiek ere. Horregatik, arazo handiena hitzak biltzea eta baliokideak aurkitzea izan zen, eta gero haiek hiztegian sartzea. Oso zaila izan zen prozesua.

Hiztegi baten lana ez da inoiz amaitzen. Halako lanek aldiro elikatzea eskatzen dute...

M. M.: Horretan ari naiz. Baina arazoa da, gaur egun, Eusko Jaurlaritzak ez duela ezer egin nahi. Hiztegi gintza, behintzat, akabo! Dena da itzultzaile automatikoa, eta itzultzaile automatikoa ona izan dadin beharrezkoak da esaldi paraleloak egotea.



Dena den, berdin zaie, eta hori oso kaltegarria da euskararentzako.

Azken datuen arabera, euskararen kale erabilera behera egin du gazteen artean. Gero eta euskara gutxiago entzuten da kaleetan. Kezka sortzen al dizue horrek?

H. Y.: Kezkatuta nago, baina alde linguistikotik begiratuta, prozesu naturala dela ere esan daiteke, eta oso zaila izango da hori geldiaraztea. Euskararen erabilera indartzeko oso garrantzitsua da euskarazko edukiak izatea.

M. M.: Oso garbi daukat: axola duena edukia da. Adibidez, Netflix bezalako plataformetan ez dago euskarazko azpiztitulurik. Orain, lehen baino gehiago dago, bai, baina dagoen hori ez da nahikoa. Beti sortzen da erdarazko edukia, eta gero eta gehiago egiten da ingelesez. Gaur egungo gazteak, batzuetan, euskaraz baino hobeto moldatzen dira ingelesez. Kontzientzia kontua ere bada. Katalunian, adibidez, jo eta ke ari dira hizkuntza goratzen, baina Euskal Herrian euskara hizkuntza txikia dela pentsatzen da, eta horregatik, erdizka egiten dugu,

hau da, erdia euskaraz eta beste erdia espainieraz –ez dut *gaztelera* hitza inoiz esaten; espainieraz diot jendea pixka bat nirekin haserretzeko–. Espainieraz egin nahi badute ekoizpena, egin dezatela, baina gero ez daitezela etorri gure nortasunaz edo gure hizkuntzaz hitz egitera; izan ere, euskaraz egiteko aukerak badaude. Orain 40 urte, Euskal Herrira etorri nintzenean, oso txarra zen euskararen egoera, baina etorkizunera begira itxaropena bazegoen. Gaur egun, gazte askoren –ez guztiena– hizkera oso pobrea da. Hala ikusten dut nik, behintzat.

H. Y.: Ikastolei esker, gero eta euskal hiztun gehiago sortu dira. Kontua da jakin badakitela, baina ez dutela euskara erabiltzen. Horregatik, Mikelek esan duen bezala, oso garrantzitsua da euskarazko edukiak izatea. Gaur egungo umeek ez dute telebistarik ikusten, baina YouTube bai, eta han euskarazko eduki oso gutxi dago. Hori dela eta, derrigorrez jo behar izaten dute gaztelera edukiak.

M. M.: Gero eta etorkin gehiago iristen da Euskal Herrira. Haiekin zer egin behar da? Benetan integratzen al dira? Ez. Hemen ditugunak dira baskoak eta bestetarrak. Denok gara euskaldunak, baina badirudi euskaldun izateko oraindik ere baskoa izan behar dela. Hori burutik kendu arte euskara hizkuntza etnikoa izango da, eta etnikoa den bitartean arazoak izango ditu. Garrantzitsua da euskalduntzea, baina ez bakarrik hizkuntza aldetik, baita sentimenduetatik ere.

Beraz, zuen ustez gazteentzako euskarazko edukia sortu behar da, eta era berean, erakundeek lanean jarraitu behar dute euskara sendotzeko. Ezin al da segurutzat jo euskara bizirik iraungo duela?

M. M.: Naziogintza da garrantzitsua, eta Euskal Herriko biztanle guzti-guztiak euskaldunak sentitzea; ez politika aldetik –politikan ez naiz sartuko–, kultura aldetik, baizik. Denok euskaldunak baldin bagara, horren gainean eraiki behar dugu euskal kultura. Ez baskoak batetik eta etorkinak bestetik; batu egin behar dugu.

Euskara oraindik ere arma politiko bezala erabiltzen dute batzuek. Gizartean, edo politikaren munduan, behintzat, normalizazio falta dagoela uste al duzue?

M. M.: Inongo zalantzarik gabe. Azken batean, dena da politika. Etsi gabe jarraitu behar da gauzak eskatzen; etsipena baldin badago, jai izango dugu



denok, beste irtenbiderik ez dago. Gaur egungo gizartea nolakoa den ikusita, beharrezkoa da denon artean kultura sendo bat eraikitzea. Baina mundura begira dagoen kultura izan behar du; ez ditu soilik jaso behar baskoen kontuak, munduko gauzak jasoko dituen kultura izan behar du. Azken batean, euskaldunak izateaz gain, gizakiak ere bagara. Hori kontuan hartu behar da, bestela jai daukagu.

Euskal Herritik kanpo jaiotakoak zarete biok, eta biok ikasi duzue euskara. Nola bultzadaiteke euskara ez dakien pertsona bat hizkuntza hori ikastera?

M. M.: Oso garbi daukat. Kanpotar bati esan da-kioke –kanpotarra izan daiteke ni bezalako norbait, anglosaxoi bat, edo izan daiteke txinatar bat, edo Valladolideko bat– euskara ikasiz gero, gutarra izango dela. Hala ez bada izango, zertarako ikasi behar du euskara? Euskara ikasi eta hemengoa ez dela esaten bazaie... Halako jarrerekin ez goaz inora. Konbentzitzeaz gain, horregatik da beharrezkoa integratzea, beharrezkoa da nazio bat egitea. Eta hori gertatzen ez den bitartean, euskara kili-kolo ibiliko da beti. Hori da nire ustea, baina agian oker nago.

Zuei zer eman dizue euskarak?

H. Y.: Niri gauza asko. Nire helburua hizkuntza bera neureganatzea zen, eta hori lortu dut nolabait. Baina, aldi berean, euskararen bitartez lagun pila bat egin ditut, eta hori altxorra da niretzako.

M. M.: Euskara hizkuntza izugarri interesgarria da, ikaragarria; oso txikia izan arren, hain da aberatsa... Oso hizkuntza berezia eta maitagarria da euskara. ■



Ikusi eksklusiban Mikel Morrisi eta Hiromi Yoshidari egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.



Joskintza, belaunaldien arteko zubi

Joskintza modan jarri da Orion, eta gaur-gaurkoz, ehun herritar baino gehiago pasatzen dira astero Ostargi elkarteak Kultur Etxeko beheko solairuan duen tailerretik. Hiru hamarkada ditu elkarteak, baina 2019tik garai berrietara egokitzeko prozesuan murgilduta dago, betiko filosofia ardatz hartuta.

Testua eta argazkiak: **Aiora Larrañaga Solaberrieta.**

Ostargi elkarteak antolatzen dituen joskintza eskoletan oihaltzen, hari eta josteko makina artean biltzen dira taldeka belaunaldi desberdinetako emakumeak, eta josten aritzeaz gain, lagun giroan egoteko tarteak izaten da askorentzat. "Berez josten ikastera etortzen dira, baina badira adineko emakumeak guk geuk baino hobeto josten edo kakorratza edo puntua egiten dutenak. Azken batean, eurentzat beste emakumeekin harremanetarako aitzakia da, eta oso pozik gaude adin desberdinetako emakumeek beren tokia bilatu dutelako Ostargin, lortu dugulako belaunaldi desberdinetako emakumeak gerturatzea", azaldu du Marian Lazkano elkartearen presidentek.

2019 bukaeran-2020 hasieran hasi ziren Ostargiko joskintza saioak indarra hartzen herrian, baina elkarteak ibilbide luzea duela azpimarratu nahi izan dute gaur egungo zuzendaritza batzordeko kideek. "2019an Ostargi Rosaura Bravori proposatu zion joskintza irakaslea izatea. Urte bukaeran hasi zen eskolak ematen, eta lehen bi hilabeteetan doako saioak eman zituen jendeak joskintza ezagutu zezan. Hasieratik arrakasta izan zuen deialdiak, eta ehun lagunetik gora inskribatu ginen; itxaron zerrenda ere sortu behar izan zuten Rosauraren eskolek izan zuten erantzun ona ikusita", gogoratu du Lazkanok.

Dena dela, "ez da erraza" bat-batean horrenbeste pertsona biltzen dituen ikastaroa antolatzea eta kudeatzea, eta garaiko zuzendaritzak hasiberriei proposatu ziren batzordean sartzea. Zazpi lagun juntatu ziren zuzendaritza batzorde berria osatzeko eta lekukoa hartzeko, tartean Marian Lazkano eta Rosaura Bravo bera, baina Ostargiren etapa berrian ezusteko handi batekin topo egin zuten: martxoan mundua geratu zuen izurritea iritsi zen.

Borondatez egiten den lanaren aitortza

Elkarteko presidenteak uste du Ostargiri izurriteak "elkartearen etorkizunaz hausnartzeko eta talde bezala indartzeko" balio izan ziola. "Inon maskararik eta babes ekipamendu indibidualik ez zegoen garaian, gu Gipuzkoa mailan aurrenetakoak izan ginen antolatzen eta musukoak, mantalak eta jantzi bereziak egiten. Inork materialik ez zuenean, oihalezko musukoak eta plastikozko poltsa handiekin egindako babes jantziak josten hasi ginen". Hain zuzen ere, egindako lanaren errekonozimendu gisa, Borondatez Egiten den Lanaren aitortza Ostargiri eman zion Matia erakundeak 2021 hasieran.

Ostargiko kideek egoeraren aurrean "azkar" erantzuten jakin zuten. Joskintza taldeko 20 emakume inguru beren artean antolatu ziren, etxean osasungintzarako materiala josten hasteko eta Gipuzkoa osoko osasun zentroetan banatzeko: Donostian, Tolosan, Zumaian eta Zarautzen, besteak beste. "Sare handia sortu genuen, eta denon elkarlanari esker izan zen hori posible. Lan polita egin genuen", gogoratu du Lazkanok. "Rosaurak bideo bat egin zuen bere etxetik maskarak nola josten ziren azalduz, eta gure artean partekatu genuen. Ni etortzen nintzen egunero Kultur Etxera materiala prestatzera, eta etxez etxe banatzen genuen taldeko kideen artean. Batzuetan nik banatzen nuen, baina beste batzuetan laguntzen ziguten Orioko Udalak herriko eragileekin batera sortu zuten Zaintza Sareko boluntarioek. Izan ere, itxialdi garaian herriko gazte asko aritu ziren etxetik atera ezin zutenei erosketak egiten laguntzen, eta horiek ere lagundu ziguten materiala partitzen". Atzera begiratu eta egindakoa gogoratutakoan, "hunkitu" egiten dira ekimenean parte hartu zuten Ostargiko kideak, eta egoera zail horri



**MARIAN LAZKANO:
"ESKAITZA ZABALA
BADUGU ERE, ADI-ADI
GAUDE ETA IDEIA
BERRIAK BADITUGU"**

**GARAI BERRIETARA
EGOKITZEKO
AHALEGINA EGITEN ARI
DA ELKARTEA, JENDE
GAZTEA ERAKARTZEKO**



Rosaura Bravo eta Marian Lazkano.

erantzuna eman eta antolatzeak izan zuten gaitasunaz "harro" daude.

Betiko filosofia garai berrietara egokituz

Izurriteak elkartaren erronka berriez hausnartzeko beta ere eman zien zuzendaritzako kideei. "Hasieratik argi genuen Ostargi zela aterki bat lehendik zetozen talde eta ikastaroak eta berriak bilduko zituen. Elkartean urte asko zeramatzaten kideekin bilerak egin genituen. Badakigu aldaketek beti sortzen dutela kezka apur bat, eta onartu behar da jende guztia ez dela egoten guztiz ados berrikuntzekin". Baina atzera begiratuta, Lazkanok uste du jakin zutela "aldaketa nahiko ondo kudeatzen". "Oso eskertuta gaude hiru hamarkadetan zehar elkartea martxan izateko aurreko batzordeek egin duten lanarekin. Horregatik, beti gure asmoa izan da berrikuntzak egitea

"Makinaz zein eskuz josten erakusten diet haurrei"

SHEILA PORTALO HAURREN TALDEKO IRAKASLEA

Aspalditik al zabilta jostintza munduan?

Ez, heldutan hasi nintzen josten. 2018an egin nuen lehen jostintza ikastaroa Zarautzen, eta hasieratik harrapatu egin ninduen zaletasunak. Jostintza eskola hori itxi egin zuten, ordea, eta Ostargiren berri izan nuen. 2020an hasi nintzen Orion, eta oso gustura nago.

Zer gustatzen zaizu gehien Ostargiko eskaintzatik?

Adin desberdinetako emakumeak biltzen gara taldeetan, eta bakoitzak bere proiektua lantzen badu ere, elkar aberasten garela iruditzen zait. Niri, esaterako, denetik pixka bat egitea gustatzen zait: motxilak, nezeserrak... Gaur egun, oso modan dago norberak gauzak egitea, eta ideia berriak oso erraz lortzen dira tutorialen eta sare sozialen bidez; gauza benetan politak egin daitezke.



Ostargin jostintza eskoletara joateaz gain, zuk zeuk ere ematen dizkiezu haurrei.

Bai, Ostargiko arduradunek proposatu zidaten haurren taldeko irakaslea izatea. Ezustean harrapatu ninduen proposamenak, baina oso gustura heldu nion erronka berriari. Lehen ikastaroa zortzi astekoa izan zen; bukatu genuen, eta haurrak ere oso pozik jardun zirenez, segida ematea erabaki genuen, zortzi asteko beste ikastaro bat antolatuz. Nik proiektuak

proposatzen dizkiet, eta guztiok proiektu bera lantzen dugu. Gogotsu aritzen dira.

Zer motatako proiektuak izaten dira?

Egin ditugu motxilak, estutxeak, kuxinak, sakelako telefonoa edo tableta eramateko zorroak, gurasoei oparitzeko loreak.... Proiektu errazak izaten dira, haurrek egiteko modukoak, baina oso politak.

Nola josten dute haurrek?

Makinaz zein eskuz josten erakusten diet, garrantzitsua iruditzen zaidalako biak ikastea. Batzuek etxean josteko makina badutenez, patrioiak egiten ere erakusten diet, gero proiektuak etxean egiteko aukera izan dezaten. Animatzen dira etxean gauzatxoak egitera: txiki geratzen zaizkien galtzekin egindako gona, panpinentzat soinekoak...

eta eguneratzea, baina Ostargiren filosofia jarraituz". Hala, azken urteetan joskintzako taldeak ez ezik, lehendik zetozen taldeak "indartzea" ere lortu dute: kakorratza, puntua, bolilloak, patronajea, killinga... "Eskaintza zabala badugu ere, adi-adi gaude eta ideia berriak ditugu. Ekainaren 12an, esaterako, kalean kakorratza eta puntua egiteko eguna izango da, eta aurten herriko plazara aterako gara. Badakigu Ostargira etortzen diren herritarrez gain, jende askok egiten duela kakorratza eta puntua etxean, eta nahi genuke guztiok bertan biltzea". Ildo horretan, iaz ekimen polita antolatu zutela azaldu du Ostargiko lehenedakariak: manta solidario bat egin zuten. "Ezagunei eskatu genien etxean zuten artilearekin karratutxo bat josteko, eta asko jaso genituen". Horiekin guztiekin osatutako manta bat zozkatu zuten, eta bertan bildutako dirua Clara Campoamor Elkarteari eman zioten.

Birziklapenari eta arropari bigarren erabilera bat emateari ere garrantzi berezia ematen dio elkarteak. "Etxean dauzkagun arropa, gortina, koltxa eta beste hainbat etxeko arropa ekartzen dute herritar askok hona, eta horrekin gauza mordoak egiten ditugu: poltsak, motxilak, nezeserrak... Horretaz gain, badugu zerrendatxo bat bigarren eskuko arropa nahi duten herritarrena, batzuk dira ekonomikoki ondo ez daudenak, baina badira beste batzuk bigarren eskuko arropa erabiltzeko hautua egin dutenak ere". Hala, norbaitek arropa eramaten duenean, guraizea sartu aurretik, zerrenda horretako kideei komentatzen diete, zerbait aprobetxatu dezaketen ikus dezaten. Lazkanoren iritziz, elkarteak egiten duen "funtzio soziala" ere balioan jartzea garrantzitsua da.

Garai berrietara egokitzeko ahalegina egiten ari da elkarteak, "jende gaztea" erakartzeko eta "elkarteari bizi-bizirik eusteko". Bide horretan, irudi eta webgune berria sortu berri dituzte. Hala ere, Ostargiren arrakastaren giltza lau pareta horien artean sortzen den "giro ederra" dela uste du elkarteak lehendakariak: "Oso goxo hartzen ditugu denak, eta harreman oso politak sortzen dira, gainera", azaldu du. "Bakoitzak bere proiektua lantzen du, baina garrantzitsuena ez da nola josten den, sortzen den lagunarteko giroa baizik. Belaunaldien arteko zubia bihurtu da Ostargi, eta norberak duen jakintza partekatzeko lekua da, ez joskintza arloan bakarrik, bizitzako arlo desberdinetan baizik. Modu naturalean gauza askotaz hitz egiten dugu josten ari garen bitartean, eta bizitzan izandako esperientziak partekatzen ditugu adin desberdinetako emakumeok elkarrengandik ikasiz". ■




DOAN EZ DA DEBALDE



ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.

bazkide@ukl.eus o 943-81 38 41

ZERK EGITEN GAITU TOKIKO HEDABIDE?



Euskararen plaza gara, herriaren irudia eta
komunitatearen ahotsa.
Batzen gaituena gara.

Txistulariak edo *músicos juglares*



IÑAKI ITURAIN iiturain@gmail.com

ARGAZKIAK: PITER ANSORENA, REMIGIO LERTXUNDI ETA JUANJO OLIDEN

Gerra ondoko lehen udal hauteskundeen ondoren (1979an) Orion osatu zen udal berriak erabaki zuen frankismoak herriko kaleei jarritako izenak kendu eta beste batzuk ematea: Herriko Plaza, Kaia, Antxiola, Eusko Gudari, Estropalari, Kale Nagusia, Abeslari eta Txistulari.

"Garai batean esaten zen udalen duintasuna neurtzen zela haietako bakoitzaren txistulari taldearen arabera. Nolako txistulari taldea, halako udala". Horixe dio Aritz Gorrotxategiren *Hiru Txulo, Donostia eta txistua* liburuak. Eta, jakina, nolako udala, halako kale-izenak! Orioko kasuan, ikusten da 1979ko udalarentzat bazela nor txistularia.

Bi adibideok garbi adierazten dute garai batean euskal herrietan txistulariak bazuela garrantzia. Nola ez, ba! Ez mp3, ez CD, ez kasete, ez diskorik ez zen gizartearen, herritarrek disfrutatu zezaketen musika bakarra zuzenekoa zen, eta orduan jendeak kantatu egiten zuen, gogotik, nahi zuenean. "Debalde festa preparatzen det, gogoia dedan orduan", zioen Xenpelarrek.

Igandeetan eta herriko festetan, goizean, txistularien

esna-deia (diana) eta elizako organoa, mezetan; eta arratsaldean, plazan, musika banda eta herriko txistulariak. Horiexek ziren herritarren aukerak musikarako. Gainerakoan, lana eta lana. Orduan toki inportantea zuten herrian txistulariek. Eta udal langileak ziren.

'Músicos juglares'

1936an, Orioko udal berria eratu zutenean, udal langileak lanik gabe utzi eta 24 orduko epea eman zitzairen lana berriro eskatzeko. Eskatu zutenen kasuan, banan-banan erabaki zen lana eman edo kale gorrian uztea.

Udalak, orduan, langile hauek zituen: administratzailea, diruzaina, zerga-biltzailea, medikua, botikaria, praktikantea, albaitaria, aguazila, serenoa, eta hiru txistulari. Txistulariak, izen bitxi honekin: *Músicos Juglares*. Juglareek lanean segitu zuten. Hauek ziren: Mariano Gonzalez de Txabarri, Dionisio Larrañaga eta Ignazio Leunda *Potxolo*.

"GARAI BATEAN ESATEN ZEN UDALEN DUINTASUNA NEURTZEN ZELA TXISTULARI TALDEAREN ARABERA"

Igande eta jaiegunetan Orioko plazan musika bandaren kontzertua izaten zen, seietatik bederatzi t´erdietara, 1970era arte. Jende asko etortzen zen Aia, Zarautz, Aginaga, Usurbil eta Lasartetik, bandaren doinuen erritmoan balsean egitera. Ordu erdiko atsedena izaten zuten eta, tarte horretan, txistulariek jotzen zuten.

Eusebio eta Martzelino Basurko anaiak

Baina Orion txisturako joera txistulari haiena baino askoz lehenagokoa zen. Iazko abenduaren 27an kontzertu bikaina eman ziguten Orioko elizan Jose Ignazio Ansorena txistulariak eta Joserra Senperena piano-joleak. Txistuaren eta danbolinaren historia azaldu zigun *Piter* Ansorenak. Orion ari zenez, bertako txistulari baten berri eman zigun: Eusebio Basurko Zabaletarena. Han ginenotako inork ez genekien ezer harenik.

Geroztik idatziz azaldu digu Piterrek Eusebio eta Martzelino Basurko anaia musikarien historia. Eusebio aspaldikoa da: 1856-1921. Orion bizi zirela jaio zen Mutrikun, ama erditzera hara joanda. Berehala Oriora itzuli eta, lehen urteak hemen emanda, haurra zela, familia Donostiara aldatu zen; baina oso lotuta egon zen beti Oriori. Donostian Raimundo



Ezkerreko txistularia Eusebio Barsurko da. Donostiako Konstituzio Plazan, haurren Esku dantza jotzen, 1915 inguruan, San Joan bezperan.

Sarriegiren lagun mina izan zen, Donostiako danborradako doinuen sortzailearena. Adiskidetasun horren froga garbia da Eusebiok Raimundo izena eman ziola seme bati, eta Sarriegi izan zela haur jaioberriaren bataioko aitajauna. Sarriegik, esker onez, hainbat kantutxo zituen txistularien bandarentzat, Basurko aita-semeei eskainita.

Eusebiok txistua jotzeko aparteko dohaina zuen. Donostiako txistulari bandaren zuzendari izan zen urte askoan. Konpositorea ere bai: sei hilabete behin udalean txisturako lan bilduma aurkeztzen zuen. Ospe handia izan zuen.

Bi anaiak oso maila handiko musikari izan ziren; txistuaz gain, beste instrumentu batzuk ere jotzen zituzten biek: pianoa, flageolet-a...

Martzelinok Parisko kontserbatorioan ikasi zuen eta, askorentzat, garai hartako Europako flauta-jolerik onena zen. Europa osoa ibili zuen kontzertuak ematen, eta Opera



1953ko irailaren 20an, plazan: Remigio Lertxundi, Santi Loidi, Jose Mari Lizaso, Juanito Peña eta Manuel Larrañaga.



Txapela buruan eta kaikua soinean, luistarren bandako txistulariak: Agustín Lizaso, Martín Lizaso, Jose Mari Lizaso, Juanito Abaurrea, Santi Loidi, Manuel Larrañaga eta Tiburtzio Arostegi.

Pariseko orkestrako eta Madrilgo Teatro Realeko flauta-jole solista izan zen.

Alejandro eta Felipe Lizaso anaiak

Basurko anaien nolabaiteko jarraitzaile izan ziren Alejandro eta Felipe Lizaso Eizmendi anai oriotarrak. Lehen ere eman genuen haien berri KARKARAN (343. zenbakia). Txistulari ezagunak izan ziren biak. Alejandro 1936ko apirilaren 5ean hil zen, 26 urterekin, gerrako frontean, tiro batek buruan jota, etsaiei esku-granadak jaurtitzen ari zela. Gudarien kapitaina zen. Hantxe lurperatu zuten, Legutioko lurretan.

Txistulari handia izan zen. Gerra hasieran, Euskal Gobernuak aukera eman zion

Europar zehar batetik bestera txistua joz ibiltzeko, Euskadiren alde. "Nire lekua frontean dago", erantzun zion.

Gerra aurretik Errenteriako udal txistulari taldean lehen txistulariaren plaza eskuratu zuen, lehiaketan. Ikasleekin banda bat osatuta, Bilboko lehen saria eskuratu zuten, lehiakide Gasteiz, Tolosa eta Bermeoko bandak zituztela. Mexiko hiriko Eusko Etxeak deituta, jira bat egin zuen Mexikon. Sortzaile ere bazen, eta zenbait melodia asmatu zuen; ezagunena, *Eusko Gudariak* kantuarien doinua.

Gerraosteko txistulariak

Baina txistularien ofizioan ere dena ez zen atsegina. 1936ko gerran, faxistak sartu berritan, oso ekimen krudela erabili

zuten, eskarmentua emateko: herriko hiru emakume kalez kale ibilarazi zituzten herriarren aurrean, ilea arras moztuta. Haien aurretik txistulariak joan ziren, jotzen, jendea esnatzeko.

Gerra ondoko garai ilunean, Eliza ez zen oso txistu-zalea. Musikak dantza zekarren, eta dantzak... bekatua. Dantza lotuan jardutea galarazita zegoen; isunak eta trabak jartzen zituzten. Festaren kontrola izugarria zen.

Elkano auzoan, Zarautz eta Aiaren arteko muga San Pedro elizaren ondoko frontoiaren erdi-erdian dago. Hango jaietan trikitilariak Aiako partean aritzen ziren dantza lotuko piezak jotzen, eta jendea Zarauzko partean dantzan, ondo helduta, don Hilarioren debekuen eraginetik kanpo.



Ezkerretik eskuinera, goian: Jose Manuel Barrenetxea, Jose Luis eta Bixente Segurola Txoko, Juan Anjel Lekuona eta Juan Jose Oliden; behean: Florentino Arrizabalaga, Jose Antonio Atorrasagasti eta Manuel Larrañaga



1954ko Gabon egunean, txistularien laguntzarekin kantatzen Patxi Danbolin zutela.

Euskarazko edozein ekimen publiko debekatuta zegoen garaian, giro hari iskin egiteko moduak asmatzen ibili zen euskal jendea. Elizaren inguruko gazte kongregazioak ziren frankismoaren giro errepresiboan gazteek zeuzkaten zirrikitu ia bakarrak. 1950eko urteetan, mendizale taldeak eta txistulari bandak sortu ziren han-hemenka.

Belaunaldiz belaunaldi txistua jotzen

Orion ere, elizako luistarren abaroan, abertzale euskaltzaleek txistuaren transmisioa egin zuten. Santiago Azurzarekin musika ikasitako Remigio Lertxundi *Akaña*, Xanti Loidi eta Jose Mari Lizaso *Auxokalte* hartu zuten lekukoa eta eutsi zioten piztuta txistularien euskal

giroari. Elizako saloia baliatu zuten han elkartu eta txistua jotzen ikasteko.

Eta, haien bidez, hurrengo belaunaldia iritsi zen: Jose Antonio Atorrasagasti eta Juan Jose Olidenek eman zioten segida. Eta, jakina, ikasle izan zirenak gero irakasle bihurtu ziren; elizako saloian gazteei erakusten jardun ziren. Haien ondorengo belaunaldia izan zen jendetsuena, Imanol Urkizurena. Haiekin asko aberastu zen herrian kaleko musika-giroa.

1973an Juan Jose Oliden eta Cristina Atorrasagasti ezkondu zirenean, Juan Joseren ikasle izandako dozenatik gora txistularik kalean alaitu zuten elizan ezkondu ondoreneko festa. Beste horrenbeste egin zioten Joxantonio Atorrari, hura

Begoña Sarasuarekin ezkondu zenean. Ikurrina legeztatu zenean ere, 1977an, txistulari haien doinuak lagundu zion udaletxeko balkoiraino gerra garaitik ezkutuan egon zen banderari.

Aian ere izan zen txistulari handi bat: Agustin Aldalur. Herriak oroitarri bat jarri zuen herriko plazan, elizako paretan, 1990ean hil zenean, txistulariaren irudiarekin eta Jose Mari Lertxundi zenaren bertso eder honekin: *Agustin maite urrezko izkiz, zaitugu guk aurkeztuko/ Aiako erria zuk ainbat iñork ez baitu aberastuko/ txistu ta dantzan gazteak jartzen jendea nondik poztuko/ zure izena nola ez degu guk bertsotan abestuko/ jun ziñan baña gure erriak etzaitu inoiz zatuko.* ■■■



h kantari kalez kale ibili zen gazte taldea, zuzendari



40 urtez ezkutuan egon zen ikurrinari eta gerran ibilitako gudariei 1977ko urtarrilaren 19an egin zitzaizen omenaldia.

Rocka den mira hadi!

Orion eta inguruan rocka nola jaio zen ezagutarazte aldera, egitasmo berezia prestatu dute ekainaren 2rako Kultur Etxean: Zestoako Leok'k musika taldeak disko berria aukeztuko du zuzenean, eta 1970eko hamarkadako mugimenduari buruzko bideoa eskainiko dute, herriko Haika taldeari arreta berezia eskainiz.

Testua: **Aritz Mutiozabal.**
Argazkiak: **Haika eta Aritz Mutiozabal.**

Ezin da imajinatu Orio nolakoa zen duela 50 urte. Hau guztia baparez beteta zegoen, eta musika lortzea oso zaila zen. Gu taldearekin hasi ginenean, 14-15 urterekin, hor elkartzen ginen gazte guztiak, Joxe Mari erretegiaren atzean zegoen Mari Karmenen futbolinean. Han musika makina bat zegoen, eta txanpona sartuta Simon & Garfunkel, The Beatles, Rolling Stones eta horrelako musika entzuten hasi ginen". Rockaren lehen haziak borborka ari ziren loratzen nazioartean, baina etxean Ez dok Amairu eta Euskal Kantagintza Berria ziren nagusi, batik bat Xabier Lete, Mikel Laboa eta, nola ez, Benito Lertxundiren ahotsetan. *Haika mutil* abestia kantaldi haietako ereserki ezagunetako bat zen sasoi hartan, eta herriko lehen rock taldeak abesti hartatik jaso zuen bere deitura. Horrela jaiki zen Haika plazara.

Ez ziren bakarrak izan 1960ko amaieran eta 1970eko hasieran txima luzeak utzi eta gitarra elektrikoak astintzen hasi zirenak. Aipatzekoak dira Azpeitiko Egan, Elgoibarko Expresion Sonora, Zarauzko Sombras Azules, Montis, Fint Glass, Dalton eta Algas, Zestoako Leok'k eta Mini Leok'k, eta Zumaiako Erupcion. Hain justu ere, Leok'k taldeak *Bizirik hala ere* disko berria aurkezteko aitortza kontzertua eskaini zuen azaroaren 23an Zarauzko Modelo aretoan. "Orduan, iruditu zitzaigun polita izango zela zonalde honetan rockaren inguruan mugitu zen jendea aitortzea", azaldu du taldeko bateria jotzaile David Gorospek. Emanaldi hunkigarri hori herriz

herri eramateko asmoa dute, eta ekainaren 2an Orioko Kultur Etxean egingo dute, 19:00etan hasita; sarrerak 2 euroko balio sinbolikoa izango du, eta ehun lagunetara mugatuko da edukiera.

Leok'k taldearen zuzeneko emanaldiaren aurretik, 1970eko hamarkadako inguruko rock mugimenduaren eta Haika taldearen atzera begirakoa jasotzen duen bideoa emango dute. Garaiko material grafikoa biltzen buru-belarri ari direla jakitera eman du Gorosppek: "Sasoi hartako Orioko historia jaso nahi dugu". Argi dagoena da lehenak eta bakarrak izan zirela bolada oso luzez. "20 urtera sortuko ziren hurrengoak, baina kontuan izan behar da mende erdia dela ekin geniola". Zalantza dute herritarrek haietaz oroitzen diren, uste dute baietz, noizbehinka gaia ateratzen delako solasaldietan, baina ez diote aparteko garrantzirik ematen. "Nik neuk ere ahaztuta daukat!", dio erdi-txantxetan Txema Moraneke.

Hasiera batean, atzera begirako ekitaldia aprobetxatuta, Haika berriz oholtza gainera igotzeko ideia bururatu zitzaizen antolatzaileei. Ideia polita bezain aproposa egoerarako. Taldekideek ez dute, ordea, bideragarri ikusten, "laga genuenetik ez baitugu berriro jo". Ezusteko itzela izango litzateke, zalantzarik gabe. *Have you ever seen the rain* abesten zuten Creedence Clearwater Revival rockero estatubatuarrek, Haikako kideen talde gogoenetako batek: *Ikusiko al dun/k inoiz euria*. Belaunaldi gazteagoek ikusiko al dute inoiz Haika zuzenean, ala garai hura bizi zutenen oroimenean geratuko da altxor moduan?

Ukuilua entsegu gela

1971-1972an sortu zuten taldea lagunartean, eta Txema Moran gitarrista, Jabi Rodrigo bateria jotzaile, Juanjo Iparragirre *Iparra* gitarrista oriotarrek eta Josu Izeta baxu jotzaile zarauztarrak osatu zuten hasierako laukotea. Moraneke Zarautzen egiten zituen orduan ikasketak, eta, bertan, Maria Barbararen etxera joaten zen gitarra jotzen ikastera. "Garaiko musikari guztiok handik pasatu ginen. Harekin ikasi genuen denok". Ilusioz ekin zioten, baina garai ilunak ziren: oraindik Franco bizirik zegoen, eta musika tresnak lortzea benetan zaila zen, elektronikako materiala proportzioan oso garestia baitzen. "Ez da gaur egun bezala, oso estandarizatuta dagoela guztia", diote taldekideek. Getarian, Isidoro Alfarok bigarren edo hirugarren eskuko denda bat zeukan, eta handik lortu zituzten haien lehen instrumentuak, gogora ekarri duenez Izetak: "Nire aitona-amonak Goiko kalen bizi



Haika taldeko hasierako laukotea Txema Moraneke, Jabi Rodrigok, Juanjo Iparragirre *Iparra*-k eta Josu Izetak osatu zuten.



**"MOLDAKETAK EGITEN
GENITUEN GURE
UKITUAREKIN,
NORTASUNAREKIN,
BESTERIK EZ ZEGOEN!"**

**"ROCK-AND-ROLLA
MAITE GENUEN GUK,
BAINA DIRUA
LORTZEKO BESTEA
EGIN BEHAR ZEN"**

ziren, Pilliku plazan, eta haien ukuiluan entseatzen genuen. Gaixoez nola jasaten zuten hura! Egurrezko lur haiekin, eta gu jo eta su entseatzen, kar-kar-kar! Izan genuen meritu handiena da lehenak izan ginela, zeren gerora talde gehiago izan baitira gu baino askoz hobeak. Baina gure meritua izan zen momentu eta giro hartan, zailtasun haiekin, musika talde bat egiteko gai izan ginela", nabarmendu du gitarristak.

Benito Lertxundi, Musika Banda eta orkestinak zeuden sasoi hartan herrian, baina Haika bezalakorik ez. Garaiko rock abestien bertsioak jotzen zituzten, garaiko talde gehienek

bezala. "Moldaketak ziren gure ukituarekin, gure nortasunarekin, besterik ez zelako geratzen!", dio erdi barrezka. Izan ere, jende askok haien bitartez entzuten zituen abestiak lehen aldiz. "Beraz, ez zekiten berdin-berdin ari ginen jotzen". Pare bat kanta atera zituzten blues-rock ildokoak, bati *Brown Boveri* izena ere jarri zioten, Oriotik pasatzen zen tren mota haren ohorez.

Orduko musika taldeentzat "lan ugari" zegoela nabarmendu dute. "Segituan hasi ginen zuzenean jotzen, ezkontza batean ez bazen, plazan izaten zen, bestela *sala de fiestas* batean. Ondorioz, dirua irabazten genuen, eta horrek musika tresna nahiz ekipamendu hobeak erosteko aukera ematen zigun. Baita azkenerako sosa batzuk jasotzeko ere geure patrikarako. Gaur egun, zailagoa da dena".

Kontzertu haiek

Moranek oso gogoan ditu Orion jotako lehen kontzertu haiek; adibidez, sanpedroak baino lehenago tabernarietako Loretxoko kalean antolatutakoa. "Jotzera joan ginen eta entxufatzeko tomarik ez zegoen, eta etxe bati eskatu eta besteari eskatu ibili ginen, baina ezinezkoa egin zitzaigun, zeren ez zuten nahikoa indarrik eta plomuak behera erortzen ziren". Beste behin herriko plazan jo zuten, eta material guztia jaisteko furgonetarik ez zeukatenez, herriko gazteak mobilizatu ziren gauzak ekartzeko, eta kontzertua amaitu zenean, atzera, entsegu lokalera eramateko.

Hiru urte inguru iraun zuen taldeak, eta bizipen zoragarriak izan bazituzten ere, akituta bukatu zuten: "Ezkontzetan, bataioetan eta banketeetan jotzeak ez zigun ilusio handiegirik egiten, eta taldekide batzuek baietz esaten zuten, besteok ezetz... Asteburu batzuetan bizpahiru emanaldi ere izaten genituen, eta nekatu egin ginen. Musika jo eta ez gozatzeko, pasodobleak eta baltsak jotzeko, uztea erabaki genuen. Guk rock-and-rolla maite genuen, baina dirua lortzeko bestea egin behar zen". ■■■



ZARAGUETA HERRI ESKOLA

"Eskolaren eta herriaren arteko lotura ikertzen ari naiz"

IMANOL VELA RODRIGUEZ UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA



Oraingoan, gure eskolako guraso bati egin diogu elkarrizketa: Imanol Vela gure gurasoa da, baina Donostiako Magisteritza Eskolako irakaslea ere bada. Doktoretza tesia burutzen ari da, eta eskolan zenbait ekintza bideratu ditu.

Imanol, nola eta nondik Oriora?

Nafarroako herri txiki-txiki batean bizi ginen. Han *gehiegizko* lasaitasuna genuen, eta lagun batzuen bitartez Oriora etortzea erabaki genuen *saltsa* bila.

Betidanik irakaskuntzan ibili zara?

Hasieran kanpaldietan eta jangelan begirale ibili nintzen, ondoren Lehen Hezkuntzan irakaslea eta aholkularia ere izan nintzen. Gerora, EHU-n hasi eta Magisteritza Eskolako irakasle bilakatu nintzen.

Zer lan ari zara egiten?

Eskolaren eta hori kokatuta dagoen herriaren arteko lotura ikertzen ari naiz. Herriak eskolari eskaintzen dion bezala, eskolak ere herriari eskaini behar dio zerbaite. Bi aldetako

harremana izan behar luke. Hezkuntza lege berrian azaltzen den Proiektu Komunitarioa deritzon gai berriarekin harreman zuzena du.

Eskolan topatu duzun egoera nolakoa izan da?

Lehendik egiten diren ekintza askok dagoeneko baldintza horiek betetzen dituzte. Eskolak duen kokapenak ere asko laguntzen du. Bestetik, irakasleek askotan aipatzen dute eskolak duen *familia* izaerak ere asko laguntzen du, eta horrek lanera gustura etortzea dakar. Irakasleek egunez egun elikatutako giro honetan, eskertzekoa da familiok atek irekita dauzkagula; horrela, gure parte hartzea eskolan handia da, saltsa askotan gabiltza elkarrekin lanean.

Zein izan daiteke azken emaitza?

Herriko kolektiboek izan ditzaketen beharrak identifikatzetik abiatuta, Oriok eskaintzen dituen baliabideak saretuta behar horiek hasetzea litzateke; herri hezitzaile baterantz pausoak ematea, alegia. Prozesua oso aberatsa izaten ari da; partaideek asko ari gara ikasten.

Nola irudikatzen duzu etorkizuneko gure Zaragueta?

Hain anitza den Orion murgildurik, herriarekin bat eta herria ikastetxearekin bat egiten duen Zaragueta irudikatzen dut. ■■■



NAROA AZKUE
ETXEBERRIA

Nerabe izatearen presio soziala

Presio soziala gizabanakoek beren jokabidea, jarrera eta iritzia aldatzen dituztenekoari deritzo. Hau da, gure printzipioak alde batera uzten ditugu, ezberdinak direlako edo agian onartuak izango ez direla uste dugulako. Eta zuk, inoiz sentitu al duzu presio sozialik?.

Presio sozial honek nerabezaroan izaten du eragin gehien, eta ustez, presio honek pertsonetan jarraitzen du. Azken finean, pertsonez inguratuta bizi gara, izan lagunak, ikaskideak, lankideak edo bizilagunak, eta beti izango ditugu gure ingurukoengandik onartuak izateko pentsamendu horiek. Bestetik, sare sozialek ere eragin handia izan dute presio mota honetan. Horiek estereotipoz beteta daude eta, ikusleek, alegia, guk, horiek erakusten dutena hartzen dugu kontuan. Honek ere ondorioak dakartza. Esaterako, gu garen modukoak izateri uzten diogu, gizarte estandarretan zentratuz, gure jarrera, iritzia, sentimenduak... aldatuz. Horrez gain, intsegritate sor dezake, baita pentsamendu propioen falta ere.

Azkenik, azpimarratu nahi nuke, presio sozial hau dela eta, geuk geure izateko era ez genukeela aldatu beharko besteen gustukoak izateko. Ni ere, gainontzekoen antzera, perfektua izateko jaio nintzen XXI. mendeko hamarkada honetan; zu ez? ■■■



Maite duzun Orio


EGINGO DUGU.

Fresatzailea
Euskaltegiako irakaslea
Arantzale ohia
Kaldereirako operarioa
Matematika irakaslea
Haur eta Lehen Hezkuntza irakaslea
Saregile ohia
Administratari ohia
Merkatari ohia
Matrona eta ekografiaria
Igeltseroa

- 12. Gaizka Gastiain Aguirre (47)
- 13. Amaia Olazabal Leonet (39)
- 14. Pedro Miguel Uranga Uranga (60)
- 15. Jon Itxaso Lizaso (45)
- 16. Laida Iturralde Larranaga (36)
- 17. Borja Zubizarreta Aramendi (32)
- 18. Ana Belen Murua Dorronsoro (61)
- 19. Koldo Olariaga Larranaga (68)
- 20. Maixabel Etxeberria Ikaran (71)
- 21. Bineta Sarr (31)
- 22. Qasim Hussain (26)

GFAko gizarte larrialditako arduraduna
Arkitektoa
Gizarteratze teknikaria
Elektronikako teknikaria
Ikastolako atezaina
Ostalaria
Portu, bide eta ubideetako ingeniari doktorea
Zientzia irakaslea
Zientzia komunikatzailea
Aholkularia
Botikaria

- 1. Anuska Esnal Oñden (42)
- 2. Olatz Santamaria Bereziartua (32)
- 3. Xabier Ibarburen Azkue (32)
- 4. Ainara Munduate Iguaran (43)
- 5. Bittor Andres Alkorta (51)
- 6. Iñaki Makazaga Urdangarin (40)
- 7. Lehitzone Salabarrieta Odriazola (40)
- 8. Iosu Lizarralde Ibarbia (33)
- 9. Nagore Rementeria Argote (47)
- 10. Inaxio Aguiluz Barrenetxea (46)
- 11. Sara Peña Lizarralde (47)



ehbildu



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK



San Juan auzoa, 16
AZKOITIA
943-85 21 10

Geltoki bidea, 1
ZARAUTZ
943-13 50 16

Santiago auzoa, 12
ZUMAIA
943-14 34 43